

**CAMPO / ARLOA**

**Saioa De la Flor Baleztena**

---

**AUCOUTURIER  
METODOLOGIA  
PSIKOMOTRIZITATE GELAN:  
TEORIA ETA PRAKTIKAREN  
ALDERAKETA**

**TFG/GBL 2014**

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

***Haur Hezkuntzako Irakasleen  
Gradua***



# Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Gradu Bukaerako Lana

**AUCOUTURIER METODOLOGIA  
PSIKOMOTRIZITATE GELAN: TEORIA  
ETA PRAKTIKAREN ALDERAKETA**

Saioa DE LA FLOR BALEZTENA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**

**Ikaslea**

Saioa De la Flor Baleztena

**Izenburua**

Aucouturier metodologia psikomotrizitate gelan: teoria eta praktikaren alderaketa

**Gradua**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

**Ikastegia**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Zuzendaria**

Imanol Echarri Garcia

**Saila**

Hezkuntza Fisikoa

**Ikasturte akademikoa**

2014/2015

**Seihilekoa**

Udaberria

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTS-ko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketaplan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa izanen litzateke, eta bertan diziplinen didaktika biltzen du; eta azkenik, Practicuma izango genuke, zeinean graduako ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatu beharko dituzte.

Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira.

Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu Hezkuntza Sistema, legea eta ikastetxeetako funtzionamendua ezagutzeko. Horren inguruko analisiak egin ditugu eta ikuspuntu kritikoa landu dugu. Nire proiektuan, beraz, analisi kritiko hori praktikan jartzen saiatuko naiz. Hau da, dena ongi argudiatuz eta baliabide anitzak erabiliz defendatuko ditut aztertutako atal guztiak.

Didaktika eta diziplinako moduluetan ordea, ikasleekin alor konkretu bat nola landu zehazten da. Haur Hezkuntzako Curriculumuma ezagutu behar izan dugu, eta hau, hasieran traba gisa ulertzen nuena tresna eta baliabide moduan erabiltzen ikasi dut. Horrez gain, proiektu bidezko metodologiak ezagutu ditugu gelan, eta eskolan horiek praktikan jartzeko aukera izan dugu. Nire lanarekin lotzearren, curriculumeko eduki, helburu eta irakaskuntzako metodologia ezberdinak ezagutzeak, aztertu ditudan bi kasu errealak hobeto ulertzeko eta elkarlotzeko lana erraztu didate.

Halaber, Practicum moduluari esker orain arte teorian ikusitako guztia erreal bihurtzea lortu dugu. Teoria eta praktika uztartuz ikasten baita hoberen, gauzak gure kabuz egiteko aukeraren bidez, ikertuz eta eraikiz. Niri dagokidanez, praktikak 3 urteko geletan egiteak adin horretako ikasleen ezaugarriak, beharrak... ikusteko bidea eman dit, eta baita haiekin lan egiteko modu ezberdinak ezagutzeko ere. Gainera hurrekin egoten garen bitartean, eskola komunitate baten parte hartzaileak izatera pasatzen gara, eta horrek eskola ezberdinak ezagutzeko aukera eman digu, bai eskola ezberdinen funtzionamendua baita irakasle ororen eginkizunak eta funtzioak ere. Azken finean gure burua etorkizunean irakasle izateko prestatzen ari baikara.

Azkenik, aukerako moduluak bidea eman dit gehien interesatzen zaidan gaia ezagutzeko, Hezkuntza Berezia alegia; hori baita betidanik gustatu izan zaidan hezkuntza esparrua. HPB-ak dituzten ikasleekin lan egiteko modu ezberdinak ezagutu ditut, eta batez ere, ikasle hauei errefortzua ikuspuntu inklusibo eta eraikitzaile batetik emateko estrategiak ikasteko aukera izan dut. Bukatzeko, aipamenaren practicumean ikasitako hori praktikan jartzeko aukera izan dut lehenengo aldiz, orain arte nire praktika guztiak haur hezkuntzan murgildurik egon baitira. Beste perfil profesional batean aritzeko aukera eman digute praktika hauek, eta niri oso baliagarriak izan zaizkit kasuan kasuko nahaste eta

trastorno ezberdinekin familiarizatzen hasteko. Ikasle hauek premia bereziak dituzten ikasleak dira, eta horri dagokionez, egokitzapenak uneora eta momentu oro nola egiten ikasi dudala esan beharra daukat. Bai egokitzapenak curriculum aldetik, materialetan edota gure esku-hartzean.

Euskaraz edo atzerriko hizkuntzan idatzitako lanetarako esan beharra daukat ez dudala inongo arazorik izan. Nahiz eta gure gradua euskaraz egin dugun, erderaz, gaztelaniaz hobetzeko ikasgaiak ere izan ditugu, beraz, prestakuntza hori jaso egin dugu. Hori dela eta, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen duen moduan, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta izan behar dugula dio horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko diren, lanaren ondorioak, erderaz idatzi beharko ditut baita lanaren hasieran egin beharreko laburpena ere.

ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen duen arabera, Graduaren bukaeran hizkuntza koofizial bat ezagutzen duten ikasle elebidunek C1 maila ere izan behar dute erkidegoaren beste hizkuntzan, alegia, gure kasuan, euskaraz. Hori dela eta, euskaraz hizkuntza gaitasuna erakusteko, gradu amaierako lan guztia hizkuntza honetan, alegia euskaraz, idatzi behar dugu.

## Laburpena

Nire lanaren helburua psikomotrizitatearen garrantziaz aritzea da, psikomotrizitateak haurraren garapenean duen eraginaz kontzientzia pizten dudana bitartean. Horretarako eta nire lana aurrera eramanez Bernard Aucouturier izeneko pertsona ospetsu batek aurrera eramandako metodoan oinarritutako naiz, haurraren berezko adierazkortasuna oinarri izango duena.

Metodo honek Praktika Psikomotriz edota Psikomotor izena du eta jarduteko atseginaren bitartez, haurraren garapen psikologikoa errazten duen hezkuntza-ekintza edo laguntza terapeutiko gisa azalera izan da. Beraz, honen bitartez eta metodo honi esker, haurraren heltze psikologikora ailegatzea izanen da nire helburu nagusietariko bat, metodo honen inguruan nik ere neure proposamen propioak eraiki egingo ditudalarik.

Metodoari esker, garrantzizkoak izango diren zenbait faktoreei buruzko formakuntza ere eskainiko dut, hala nola psikomotrizitate gelaren dispositibo espazial zein tenporala, psikomotrizistaren jarrera, behaketa parametroak bezalako faktoreak goraiatu eta azpimarratuko ditudalarik.

*Hitz gakoak:* Psikomotrizitatea; Aucouturier; Praktika Psikomotorra; Berezko Adierazkortasuna; Heltzea.

## Abstract

The objective of this work is to emphasize the importance the psychomotor activity has in the growth of the child.

Is this why I present the method created by Bernard Aucouturier, that is based principally on encourage child's spontaneous expression.

This method is known as Bernard Aucouturier's "Psychomotor Practice", which through the pleasure, aims to help in the psychological development of the child.

Thanks to this method, I can analyze several important factors to consider as well as the spatial and temporal device, the attitude of psychomotor, technicality, the display parameters... They have a fundamental value in the psychomotor practice.



*Keywords:* Psychomotor; Aucouturier; Psychomotor Practice; Spontaneous expression; Development.

### **Resumen**

El objetivo de mi trabajo es hacer hincapié en la importancia que tiene la psicomotricidad en el desarrollo del niño/a.

Para ello, presento el método creado por Bernard Aucouturier, que se basa principalmente en fomentar la expresividad espontánea del niño/a.

Este método es conocido como la “Práctica Psicomotriz” de Bernard Aucouturier, el cual mediante el placer, tiene como objetivo ayudar en el desarrollo psicológico del niño/a.

Gracias a este método, podré analizar varios factores importantes a tener en cuenta así como el dispositivo espacial y temporal, la actitud del psicomotricista, la tecnicidad, los parámetros de observación... Todos ellos tendrán un valor fundamental en la práctica psicomotriz.

*Palabras clave:* Psicomotricidad; Aucouturier; Práctica Psicomotriz; Expresividad Espontánea; Desarrollo.

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b>	<b>1</b>
<b>1. MARKO TEORIKOA</b>	<b>9</b>
<b>1.1 TESTUINGURUA (Gaiaren zentratzea)</b>	<b>9</b>
1.1.1 Psikomotrizitatearen definizioa	9
1.1.2 Autore ezberdinen ekarpenak definizioari dagokionez	10
1.1.3 Psikomotrizitatearen helburuak	12
1.1.4 Diziplinaren historia	14
1.1.5 Diziplinaren aplikazio esparru ezberdinak	14
1.1.6 Psikomotrizitatearen bilakaera	16
<b>1.2 PRAKTIKA PSIKOMOTORRA (BERNARD AUCOUTURIER METODOLOGIA)</b>	<b>19</b>
1.2.1 Bernard Aucouturierren biografia	19
1.2.2 Bernard Aucouturierren praktika psikomotorraren definizioa	20
1.2.3 Praktika psikomotorrak haurrengan duen garrantzia	21
1.2.4 Praktika psikomotorraren oinarritzko aipatze teoriko-praktikoak	22
1.2.5 Praktika psikomotorraren oinarriak	24
1.2.6 Praktika psikomotorraren helburuak	29
1.2.7 Psikomotrizistaren begirada: jarrerak	33
1.2.8 Psikomotrizitate gelaren analisia	48
<b>2. ALDERDI PRAKTIKOA</b>	<b>62</b>
<b>2.1 BERNARD AUCOUTURIERREN PRAKTIKA PSIKOMOTORRAREN METODOAREN HAUSNARKETA KRITIKOA</b>	<b>62</b>
<b>2.2 BIDEO GRABAKETAN OINARRITUTAKO ANALISI KRITIKOA</b>	<b>64</b>
2.2.1 Aucouturier metodoan oinarritutako metodologiaren egitura	66
2.2.2 Psikomotrizitate saio batean irakasleak, psikomotrizista gisa izan beharreko jarrera	75
<b>2.3 AUCOUTURIERREN METODOA EBALUATZEKO PROPOSAMENAK</b>	<b>77</b>
2.3.1 Aucouturier metodoan oinarritutako metodologiaren inguruan kontutan hartu beharreko zenbait proposamen	78
2.3.2 Aucouturier metodoan oinarritutako psikomotrizista baten jarreraren inguruan kontutan hartu beharreko ekarpen batzuen proposamenak	83
<b>2.4 SANDUZELAI ESKOLAKO AUCOUTURIER METODOAN OINARRITUTAKO PSIKOMOTRIZITATE GELAREN SORRERAREN ADIBIDEA</b>	<b>87</b>
<b>ONDORIOAK - CONCLUSIONES</b>	<b>93</b>
<b>ERREFERENTZIAK</b>	<b>99</b>
<b>I ANEXO. Behaketa fitxa baten adibidea</b>	<b>101</b>

**IRUDIEN AURKIBIDEA**

<b>1. Iudia.</b> Disziplinaren esparru ezberdinak	16
<b>2. Iudia.</b> Bernard Aucouturier	19
<b>3. Iudia.</b> Haurren garapenean eragina duten dimentsioak	26
<b>4. Iudia.</b> Zer da komunikazioa?	31
<b>5. Iudia.</b> Praktika psikomotorren helburuak	33
<b>6. Iudia.</b> Behaketa parametroak	44
<b>7. Iudia.</b> Haurra psikomotrizitate gelan jarraitu beharreko ibilbidearen adierazpena	49
<b>8. Iudia.</b> Psikomotrizitate saio batean jarraitu beharreko metodologiaren egitura	53
<b>9. Iudia.</b> Bernard Aucouturierren metodoaren kontzeptu mapa	60
<b>10. Iudia.</b> Bernard Aucouturierren metodoaren kontzeptu mapa	61
<b>11. Iudia.</b> Harresi mota baten adibidea	66

**TAULEN AURKIBIDEA**

<b>1. Taula.</b> Ikerketa ezberdinen ezaugarriak	2
<b>2. Taula.</b> Autore ezberdinen ideia nagusiak	12
<b>3. Taula.</b> Psikomotrizitate klasikoa eta bizipenezkoaren arteko alderaketa	17
<b>4. Taula.</b> Praktika psikomotorraren oinarritzko aipatze teoriko-praktikoak	23
<b>5. Taula.</b> Psikomotrizistak hartu beharreko jarreraren ideia nagusiak	34
<b>6. Taula.</b> Psikomotrizistaren funtzioak eta jarrerak	42
<b>7. Taula.</b> Behaketa parametroetan kontutan hartu beharreko alderdiak	45
<b>8. Taula.</b> Espazioen antolaketa eta materiala	57
<b>9. Taula.</b> Harreraren alderaketa Aucouturier eta bideo grabaketari dagokionez	67
<b>10. Taula.</b> Helburu eta ondorioen laburpena	97

## SARRERA

Gaur egun gure gizartea izugarritzko aldaketak eta aldaketa ugari jasaten ari da, aldaketa horiek Haur Hezkuntzan eragin nabarmena dute.

Aldaketa guzti horien faktore nagusietako bat familia-antolamenduan egon diren aldaketak izendatzea beharrezkoa dugula esan beharra daukat. Familia-antolamenduak hezkuntza-prozesuan zehar eskaintzen dituen balioak eta jarraibideak bestelakoak baitira. Hori dela eta, eta honekin jarraitu nahian, eskola eta familiaren arteko harremana ona izaten saiatu behar gara profesionalek, azken finean erlazio horrek haurraren gaitasun pertsonalak sistematikoki behar dituen elementuak eskura izatea ahalbideratzea egingo gaituelako, horrela haurraren garapenerako ezinbestekoak diren alderdiak eta ezagupenak zeintzuk diren ezagutu eta horiek garatu ahal izateko.

Beraz, kontutan hartu behar dugu Haur Hezkuntzan “garapen-etapa bakoitzean haurrak organoei, psikomotrizitateari, hizkuntzari, kontzeptuei eta afektibitateari dagozkien gaitasunez jabetzen ari direla aldi berean, eta horrenbestez, pertsona bakoitzak bere inguruneari dagokionez arian-arian egiten ari duela aurrera, norbanako gisa eta gizarteko kide gisa ere. Hala, eboluzio-aukera ugariak egon daitezke eta horiek pertsonen, taldeen eta kulturen arabera adieraziko dira” (Delfis, 2000).

Hau esanda, haurra jaiotzen den momentutik hiltzen den momentu arte gaitasun batzuekin jaiotzen dela kontutan hartu behar dugu, beraz, haurra ezin izango dugu izaki pasibo bat bezala ikusi. Gaitasun horiek inguruarekin hartuko dituen zenbait erabakietan izango du eragina, hala nola, helduarekin, objektuekin izango dituen harremanak baldintzatuko ditu aurrerantzean.

Honetarako haurra alderdi emozionalean zein afektiboan aseturik sentitu behar dela kontutan hartu behar dugu (eguneroko zaintzak aseturik dituela, maitasuna...) dakarren guztia. Honek objektuenganako inizatiba hartzea suposatuko du, objektu horrenganako interesa, zirrara, manipulatzeko grina, jolasteko grina piztuz.

Modu horretaz eta objektuak manipulatzeko dituen bitartean, haurra autonomoki jarduteko eta esperientzia errepikakorrek bizitzeko aukera izango du, horrela bere pentsamendua eraikitzen joango delarik.

Gizakiaren garapenarekin beraz, lan hau egiterakoan ikerketa askorekin bat egin dudala esan beharra daukat. Ikerketa guzti horiek gizakiaren garapenean eragina dutela antzemanduz.

Hauek dira, nire lanarekiko ikerketarekin batera, bilatu izan ahal ditudan beste zenbait ikerketa.

**1. Taula.** Ikerketa ezberdinen ezaugarriak

TEORIA	EGILEA	EZAUGARRIAK
Garapen psikologikoarena	Piaget	Mugimenduaren garrantzia nortasuna eratzeko.
Psikobiologikoa	Wallon	Mugimenduaren eragina funtzio psikologikoak eratzeko.
Heldutasunezkoa	Gessel	Heldutasunak eragiten du garapen egokitzalea, sozial, motor eta ahozkoa.
Ezagutzaren Eraikuntza	Vigotsky	Ingurune soziokulturalaren eragina ikaskuntza-prozesuetan.
Psikoanalista	Lapierre Aucouturier eta Freud	Pertsonen arteko harremanen eragina.

Hau guztia esanik, nire lana gehienbat teoria psikoanalistetan oinarritua izan dela esan beharra daukat, azken finean, mugimenduak eta gorputzak pertsonen arteko harremanetan duten garrantzia azpimarratzea izan baita nire lanaren helburu nagusietariko bat.

Lan hau aurrera eramateko Lapierre eta Bernard Aucouturierrengan zentratu nahiz bereziki. Eta autore hauengan eta bereziki Bernard Aucouturierrek praktikara eramaten duen praktika psikomotorrean zentratzea izan da nire lan honen eginkizun nagusia.

Askotan ezagutua eta entzunda izan dudan Bernard Aucouturierrengan zentratzea izan da nire asmoa, bereziki aurrera eraman duen praktika psikomotor horren inguruan aritzea eta sakonki hortan zentratzea izango da nire helburua. Azken finean, metodo honi esker haurra ikaskuntza egoera baten aurrean jartzea posible izango baitugu.

Helburu hau nire grin pertsonalarekin bat topo egiten du. Nire aburuz hau izan behar delako profesionalek, eta kasu honetan, irakasleek kontutan hartu behar dugun gauzarik garrantzitsuena. Modu horretaz, haurra biltze egoera baten aurrean jarri ahal izango dugulako, biltze egoera horrek haurrak beharrezkoa izango duen heltze emozionalera zein ekintze logikoetara iristea ahalbideratuz.

Haurra ikaskuntza egoera horretan jarri ahal izateko, Aucouturierrek psikomotrizitate gela, espazioa izango du erabilgarri eta niretzat hau, interes eta jakinmin handiko espazioa izan dela beti esan beharra daukat. Psikomotrizitate gelan, psikomotrizitatearen bitartez, haurrek bizi dituzten bizipenak, egin nahi dituzten ekoizpenak eta azken finean adierazkortasun motriza adierazteko espazio gisa aurkeztuko baita.

Psikomotrizitate gelaren bitartez haurren garapenaren eboluziorako beharrezkoak izango diren zenbait gauzetaz ohartzea posible izango dugu eta beraz, Aucouturierrek aurrera eramaten duen metodoaren bitartez zein estrategia kontutan hartu beharko ditugun adieraziko digu. Estrategia guzti horiek praktika psikomotorren oinarriak finkatuko ditu eta aurrerantzean, gure lanean, guk ere, kontutan eta aurrera eraman behar izango ditugun estrategietan bilakatuko dira.

Beraz, guzti honengatik lan honekiko grina piztu egin zitzaidan. Psikomotrizitate saioetan gertatzen den guztia, haurren nahia, desira plazer bilakatzeko helburuarekin egiten baita. Eta niri hau, haur hezkuntzatik eta bereziki etapa honetatik gehien gustatzen zaidana da. Haurra bere kabuz, bere nahi eta desiren kabuz, plazerra izatera iristea edota lortzea.

Beraz, dagoeneko gure gaia eta lanketa alorra zehaztu ditugularik lanketa honetan ze *helburu* lortu nahi ditudan zehaztea gustatuko litzaidake.

Hausnarketa baten ondoren honako helburu batzuk proposatuko ditut:

- Psikomotrizitateak haur hezkuntzan duen garrantziaz kontziente izatea.
- Psikomotrizitatearen garrantzia haurren garapenean.
- Psikomotrizitateari esker lortzen den jolas sinbolikoa analizatzea.
- Haurrak bizi ditzazken egoera estuen aurrean estrategiak eskaintzea. Hala nola; segurtasun afektiboa zein material ezberdinen disponibilitatea.
- Gorputzaren bitartez, gauzatuko duen adierazkortasun motrizaren bitartez haurra ezagutzea.
- Haurrenganako erabateko errespetua, aniztasunaren trataera.
- Haurren garapenerako egokia den gela prestatzea.
- Profesionalen esku-hartzea nolakoa izan behar duen teknikak, estrategiak ikastea, irakastea.
- Psikomotrizistak hartu beharreko jarreraren ezagutzea eta ikastea.
- Praktika psikomotrizak izan ditzazkeen erabilgarritasunak ezagutzea. Terapia, hezkuntza eta laguntza arloetan.
- Aintzinako psikomotrizitate eta gaur egungo psikomotrizitatearen arteko onura ezberdinetaz gizartea kontziente izatea.
- Psikomotrizitate gelaren barruan pertsonen arteko harremanak bermatzea.
- Eskolako oinarrizko ikaskuntzak bermatzea. Psikomotrizitate gelaren barruan ikasten diren jokabideen garrantziaz hausnartzea.

Aurretik aipatutako guztia kontutan harturik, eta nire interesak zein helburuak zeintzun diren kontutan harturik, sarrera honetan ere *gradu* amaiera gisa eskuratu beharreko *kompetentziei* ere erreferentzia egitea gustatuko litzaidake.



Horiatariko batzuk egindako lanean zehar modu honetaz isladaturik agertu daitezke:

- *Oinarrizko gaitasunak 1 eta 2 (CB 1, 2):* Ikasleek ikasketa hezkuntza eremu baten inguruko ezagutza demostratzea, eta honek maila akademikoa izan dezala, liburu eta testuetan oinarritzen bada ere, bertan lanketaren eremuaren ezagutza inplikatzan duten aspektuak daudelarik.
- *Gaitasun orokor eta espezifikoak 2, 3 eta 8 (CB eta CE 2, 3, 8)* Haurra aurkitzen den garapen ebolutiboaren ezagutza, baita gaitasun kognitibo, sozial, pedagogikoaren ezaugarriak. Eta horrek dakarren inplikazioa haur hezkuntzako kurrikulumean.
- *Gaitasun espezifikoak 2 (CE2):* Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatzea, bai indibidualki zein irakasle eta zentroko profesionalekin elkarlanean.
- *Zeharkako gaitasunak 2 (CT2):* Gaztelania eta, bere kasuan, euskaraz “Europako hizkuntzen erreferentziazko marko komunena: ikaskuntzan, irakaskuntzan, ebaluazioan” C1en baliokide den hizkuntza konpetentzia erakustea.
- *Gaitasun orokor eta espezifikoak 10 (CE10):* Lan honetan familiaren garrantzia eta beraiekin egin beharreko lanaren garrantzia azpimarratzen da.

Sarrerarekin bukatu ahal izateko, eta lan honen nondik norakoak adierazi ahal izateko, erabilitako *metodologia* zein izango den adieraztea beharrezkoa iruditzen zait.

- ***Gaiaren aukeraketa eta landu beharreko alorraren zehazketa.***

Gaiaren aukeraketa egindako formakuntza pertsonal zein ikasle bezala izandako ibilbidearekin zerikusia izan du. Baita psikomotrizitatearen inguruan aritzeko ezjakintasunagatik ere. Hori dela eta, landu beharreko alorraren zehazketa, psikomotrizitatearen inguruan egitea erabaki dut, psikomotrizitate alorrean ikuspegi berri baten lanketa sakona eginez.

Lanketa honen bitartez gaur egun martxan dagoen metodologia berri bati buruzko lanketa egitea bururatu zait, Aucouturier metodoari buruz hain zuzen ere, bestelako ikuspegi bat isladatzeko modu gisa.

Modu honetaz, metodo honi esker lortutako onurei buruz hausnartzea izanen da nire eginkizun nagusia, onura horiek haurren garapenean duten garrantziaz jabetuz.

- ***Bibliografia eta dokumentu iturrien bilaketa eta analisia.***

Gai honi buruzko lanketa egin ahal izateko, zenbait liburuetan egin behar izan dut zenbait bilaketa. Honetarako *Aucouturier metodoa (Ekintza fantasmak eta praktika psikomotorra)*, *Sinbologia del Movimiento*, *Fundamentacion de la Practica Psicomotriz en B. Aucouturier...* bezalako liburuak irakurri behar izan ditut.

Bestalde, Google bilatzaile orokorra ere tresna gisa erabili izan dut, honen bitartez webgune ezberdinetan agerturiko artikulua, blog, aldizkari ezberdinetan agerturikoa irakurri ahal izateko. Irakurritako artikulua guzti hauek gaiaren inguruan ideia nagusiak ateratzen izugarri lagundu didate.

Horiatariko batzuen presentzia: *Assosació per a l'Expressió i la Comunicació*, *Espacio logopedico.com*, *Alaya (Difundiendo Infancia)* aldizkaria, *hikhasi.com...* dira besteak beste.

Artikulu guzti eta ezberdin hauetatik irakurritako ekarpenei esker, nire lanketaren ekoizpena errazagoa eta interesgarriagoa bilakatu da. Nire lanaren helburuak behin zehaztuta nituelarik, nondik norakoak hartu behar nituen zehazteko baliagarriak izan zaizkit. Beraz, aipatze bibliografiko gisa interesgarriak izan direla esan beharra daukat.

Bestalde irakurritakoa ere gaiaren inguruan formakuntza jasotzeko balio izan zaidala esan beharra daukat, gaiaren hasieran nire formakuntza lanketa honi dagokionez, oso eskasa baitzen. Beraz, iturri ezberdin guzti hauetatik nire ikaskuntza gauzatzen joan dela esan beharra daukat.

Hala ere, iturri ezberdinen justifikazioaren inguruan esatea gustatuko litzaidake, gai honen edota lanketa honen inguruan oso ikerketa gutxi aurkitu izan ditudala. Egindako ikerketa gehienak, artikulua, blog, web orri ezberdinen bitartez gauzaturikoak izan dira, baina, zehazki metodo honen inguruan ikerketarik bilatu ez ditudala esan beharra daukat. Azken finean, metodo hau, jada sortua eta gaurkotua izan eta dagoelako gure gizartean.

Beraz, aurkitu izan ditudan iturrietan bakarrik, metodoaren inguruko lanketak, gaiaren inguruko informazioa bilatzeko aukera izan dut, ez ordea, metodo honi buruzko ikerketa ezberdinak.

- **Psikomotrizitatearen garrantzian uztartzea.**

Psikomotrizitate kontzeptuaren inguruko azterketa eta analisisia egin dut hirugarren puntu honetan. Psikomotrizitateak haurraren garapenean duen garrantziaren jabeak eta psikomotrizitateak historian zehar izan duen bilakaeraz ohartarazteko modu gisa. Honetarako, psikomotrizitatearen definizioan, esanahian lanketa sakona egin dut.

- **Bernard Aucouturierren metodoarekin zentratzea.**

Gaia behin zehaztuta nuelarik Bernard Aucouturierren metodoaren analisiaren ekoizpena egingo nuke. Metodo horrek dakarren oinarriko kontzeptuak, oinarriak, alderdi ezberdinak...identifikatuz eta horietan zentratuz.

Beraz, Bernard Aucouturierren praktika psikomotorraren inguruko lanketa teorikoa aurrera eraman dut, horrek dakarren sakontasunarekin.

- ***Lanketaren ondorio eta azken gogoeta zein proposamenak. Praktikaren aldia.***

Bernard Aucouturierren metodoak haurraren garapenean dituen onurak analizatzea izango da praktika alor honetan egingo dudana.

Metodo hau aurrera eramateko beharrezkoak diren tekniken inguruko hausnarketa egin behararen garrantzia azpimarratuko dut eta azkenik psikomotrizitate eredu ezberdinen alderaketa eta horiek dakartzaten ondorio ezberdinen inguruko hausnarketan jarriko nuke garrantzia. Kasu honetan psikomotrizitate klasikoak haurraren duen eraginari buruz hausnarketa egingo nuke, beti ere, lan honetan garatutako metodoari erreferentzia, edota alderaketari erreferentzia eginez.

Metodo honek jarraitzen dituen tekniken inguruko hausnarketa egin ahal izateko, psikomotrizitate saio baten grabaketan oinarrituko naiz, psikomotrizitate saio horretan Bernard Aucouturierren metodoaren oinarriak azpimarraturik egongo direlarik.

Grabaketa honen helburua haurraren jarrerak zein psikomotrizistaren jarrerak analizatzea helburu izango dute. Haurrek bizitzen ari dituzten egoera ezberdinei erreferentzia egin gabe. Honetarako eta lanketa honen proposamen gisa, psikomotrizistaren jarrera ikertzeko zein metodo honek haurrengan duten eragina ebaluatzeko asmoz, nik neure kabuz ebaluazio tabla bat sortuko dut, metodo honek dituen ezinbesteko zenbait oinarri goraiatuz. Proposamen honen helburua Acouturierren metodoan ikusitako gabeziei erreparatzea izan da.

Bukatzeko, Sanduzelai Eskolako proiektu baten adibidea aztertuko dut: Psikomotrizitate gela berri baten sorreraren adibidea, Bernard Aucouturier metodoan oinarrituta. Psikomotrizitate gela honek dakarren onurak zeintzuk izan diren aipatuko ditut eta gelaren eboluzioari buruz, bilakaeraren inguruan arituko naiz proiektuari dagokion amaiera eman ahal izateko.

# 1. MARKO TEORIKOA

## 1.1 TESTUINGURUA (Gaiaren zentratzea)

### 1.1.1 PSIKOMOTRIZITATEAREN DEFINIZIOA

Psikomotrizitateaz hitz egitea ez da batere erraza, hitz horren esanahia eztabaida handiak sortzen baititu gaur egun. Gainera anbiguoetate handia duen hitza dela kontutan hartzen badugu, hori denok berdina ez pentsatzera bultzatzen dezake. Beraz, nahiz eta hitz berbera erabili, bakoitzak modu desberdin batean ulertzeko joera dagoela esan dezaket argi eta garbi.

Hori dela eta, psikomotrizitatearen inguruan agertu diren hainbat esanahia honakoak izan dira:

- Psikomotrizitatea metodo propioa duen jakintza eremua da, teoria eta printzipioei dagokionez. “mugimenduaren zientzia” izenez ezagutu genezake, Gorputz Hezkuntzaren edota Kirol Psikologikoaren kompetentzia gisa.
- Psikomotrizitatea ere, “esku-hartze teknika” bat bezala ere ikusi izan da, gorputzaz baliatuz adimenaren inguruan aritzeko aproposa dena. Bai arazo kognitiboetan, neurologikoetan edota psikikoak aztertzeko erabilgarria ere. Honek bi ibilbide izan ditzake: praktika psikomotorra edota esku-hartze psikomotorra, saioak gidatuak ala ez gidatuak diren araberakoak.
- Psikomotrizitateak norbanakoaren gaitasunetan sinesten du, helduek dakarren zenbait ezaugarrien arabera. Psikomotrizitateak umeei beren barneko munduari buruz, modu motrizean adierazten dutena ulertzen laguntzen digu, baita haien jokabidearen zentzua ulertzen ere.
- Psikomotrizitatea bere zentzu zabalenean, gizakiaren garapen psikologikoari eta eraikuntza somatopsikikoari egiten dio erreferentzia. Garapen hau inguratzen duen munduaren arabera ematen da, bere konplexutasuna agerian jarritz. Gorputzaren esperientziak ingurunearekin duten harremanetan dira psikismoaren oinarria osatzen dutenak, baita errepresentazio zaharrenak ere.

Laburturik, eta esanahia osotasunean borobiltzeko asmoz, esan dezaket Psikomotrizitatea gizakiaren garapenaren konplexutasunaz arduratzen den zientzia dela zehazki, honek kanpoko munduarekiko heltze psikologikoaz arduratzen delarik.

Psikomotrizitatearen kontzeptutik abiatuta praktika anitzak garatu dira, baita hauen aplikazio pedagogiko eta terapeutikoan kontraesankorrak direnak ere.

Praktika funtzionalenek konpetentzien eta jarreraren normalkuntzaren eskakizunetan jartzen dute arreta, praktikarik adierazkorrenek emozioen lanketaren beharrari eta motrizitatea eta jolasaren bitartez egindako irudikatze inkontzienteei erantzuten dieten bitartean.

Bestalde, psikomotrizitatearen bi dimentsio hauek bi hurbilketa filosofiko kontrajarriri dagozkie. Funtzionalak subjektuaren zantzuen alderdi aringarri batera zuzentzen dira, adierazkorrak, berriz, subjektuaren errekurtsoen garapenerantz.

- **Espainiako Psikomotrizitatearen elkarteek edo psikomotrizitzaileek adostutako definizioa**

Pertsonaren ikuspegi orokor batean oinarrituta, "psikomotrizitate" terminoak interakzio kognitiboak, emozionalak, sinbolikoak eta sensomotrizak biltzen ditu, testuinguru psikosozial batean izateko eta adierazteko gaitasunean. Psikomotrizitatea, horrela definituta, nortasunaren garapen harmonikoan ezinbesteko papera betetzen du. Ikusmolde honetatik abiatuta psikomotrizitatean esku hartzeko modu ezberdinak garatzen dira, adina edozein dela ere, arlo ezberdinetan bere aplikazioa aurkitzen dutenak; prebentiboa, hezigarria, berhezkuntza eta terapia arloetan.

### *1.1.2 AUTORE EZBERDINEN EKARPENAK DEFINIZIOARI DAGOKIONEZ*

- **G<sup>a</sup> Núñez eta Fernández Vidal (1994)**

Psikomotrizitatea asmo-ekintzan edo esanahi-ekintzan eragina edukitzeko joera duen teknika edo tekniken multzoa da, estimulatu edo eraldatzeko, bitartekari gisa gorputzaren jarduera eta bere adierazpen sinbolikoa erabiliz. Psikomotrizitatearen helburua, beraz, subjektuak ingurunearekin duen interakzio gaitasuna handitzea da.

- **Berruezo (1995)**

Psikomotrizitatea esku hartze terapeutikoaren edo hezkuntzaren esku hartzearen ikuspuntua da, zeinaren helburua, gorputzetik abiatuz, ahalbide eragilea, ahalbide adierazlea eta sormenerako ahalbidearen garapena den. Honek jarduera eta mugimenduan zein ekintzan interesa eta arreta jartzera darama, honengandik eratorritako guztia barne: disfuntzioak, patologiak, estimulazioa, ikastea...

- **Muniáin (1997)**

Psikomotrizitatea hezkuntza/berhezkuntza/terapeutiko jarduera bat da, elkarriketa bezala ulertua, gizakia unitate psikosomatikotzat duena eta gorputzaren eta mugimenduaren bidez bere gain jarduten duena, harreman bero eta deszentratu baten ingurunean, bitartekaritza metodo aktibo baten bitartez, nagusiki gorputzarena, bere garapen osoan laguntzeko helburuarekin.

- **De Lièvre eta Staes (1992)**

Psikomotrizitatea norbanakoaren ikuspegi globala da. Gizakiaren funtzio bat bezala ulertua izan daiteke, psikismoa eta motrizitatea sinetizatzen dituen, norbanakoari ingurunera modu malgu eta orekatu batean egokitzea ahalbideratzeko helburuarekin. Begirada globalizatzaile bat bezala ulertua izan daiteke, bai motrizitatea eta psikismoaren arteko baita norbanako globala eta kanpoko munduaren arteko interakzioak ere antzematen dituen. Teknika bat bezala ulertua izan daiteke, zeinaren ekintzen antolakuntzak pertsonari bere eta bere inguruko izatea zehazki ezagutzea ahalbideratzen dioten, honetara egokituta aritzeko.

**2. Taula.** Autore ezberdinen ideia nagusiak

AUTOREA	IDEIA NAGUSIA
<b>G<sup>a</sup> Núñez eta Fernández Vidal (1994)</b>	Subjektuak ingurunearekin duen interakzioa areagotzea du helburu.
<b>Berruezo (1995)</b>	Gorputzaren bitartez ahabide eragile, ahalbide adierazle eta sormenerako ahalbide gauzatzea du helburu.
<b>Muniain (1997)</b>	Bitartekaritza metodo aktibo baten bitartez, eta gizakia unitate psikosomatikotzat harturik, gorputzaren eta mugimenduaren bidez jardutea du helburu.
<b>De Lièvre eta Staes (1992)</b>	Norbanakoaren ingurunea modu malgu eta orekatu batean egokitzeke teknika gisa aritzea du helburu.

**1.1.3 PSIKOMOTRIZITATEAREN HELBURUAK**

Psikomotrizitatearen garrantziaz hitz egin ahal izateko, psikomotrizitateak haur hezkuntzan dituen helburuetaz hitz egitea beharrezkoa da.

Psikomotrizitatea gaur egun oso hedatua dagoen heziketa, terapia metodo bat da. Gaur egun Espainia mailan ez da oraindik oso zabaldua izaten ari, baina Euskal Herrian, ordea, geroz eta garrantzi handiagoa duela esan beharra dut. Hau honela izatea arrazoi ugari ditu.

Alde batetik kontuan hartu behar dugu psikomotrizitatea ez dela bakarrik terapia egiteko lan tresna bat baizik eta, trastornoak, arazoen bidea aztertzeaz aparte ere hezkuntza bera eta haurren eboluzioa bideratzeko eta hezitzeko bidea dela psikomotrizitatea.



Beraz, modu oso labur batean laburturik hauek izango lirateke psikomotrizitatearen helburu orokorrak zein espezifikoak.

- **Helburu orokorrak**

- 1 Haurraren garapena kontuan harturik alor ezberdinetan laguntzeko zientzia aproposa da psikomotrizitatea.
- 2 Egiteko, jolasteko, eta sortzeko plazerraren bitartez funtzio sinbolikoa sustatzea du helburu. Modu horretan, fase sinbolikoko maila ezberdinetatik igarotzen laguntzen digu. Hala nola, “egiteko plazerra” eta “egiteko edo pentsatzeko plazerraren” prozesuak bizitzeko aukera eta laguntza emanez.
- 3 Ekintza motrizen bitartez haurrek estutasun egoeretan nola aurre egin beharko duten ikasiko dute.
- 4 Pentsatzeko plazerrera eta pentsamendu operatoriora heltzea da psikomotrizitatearen helburu nagusietako bat.

- **Helburu zehatzak**

- 1 Ekintza eta jolasaren bitartez haurraren heltze psikologikoa sustatu eta norbanakoaren garapenean laguntzea.
- 2 Gorputzaren bitartez, bere adierazkortasun motrizetik abiatuta haurra ezagutzea.
- 3 Errespetu handiarekin haurra onartzea, aparteko esperientzia duen eta garatze dabilen persona bezala kontsideratuz.
- 4 Segurtasun afektiboa eta materiala ziurtatzen duten esparruak eskaintzea, non haurrak bere potentzialtasun guztiak garatu ahal izango dituzten, mugatuenetik garatuenetara.
- 5 Ekintzen, jolasen eta errepresentazioen plazerraren bitartez haurrari segurtasun prozesuak eskaintzea.
- 6 Haur bakoitzaren gorputzetik abiatuta lengoaira doazen sinbolizazio era konplexuagoetarako bidea erraztea.
- 7 Sentimenduak, bulkadak, agresibitatea era sozializatu batean adierazteko aukera ematea.

#### 1.1.4 DIZIPLINAREN HISTORIA

Frantzia jaiotzen den terminoa da psikomotritate. Termino hau sortzen aitzindaria *Dupré* da 1907an, anomalia psikiko eta motrizak lotzen dituzten erlazio estuak agerian utziz, ahultasun motrizari buruzko bere deskribapenei esker.

*Wallonek*, 1925ean, funtzio tonikoaren garrantzia azpimarratzen du, komunikazioa eta emozioak sortzen dituen baita, eta era berean *Piagetek*, ekintza komunikazioaren eta emozioen jatorria dela baieztatzen du.

Baina *Ajuriaguerrarekin* da Psikomotritate praktika zehatz bezala osatzen denean, metodo eta tekniken ekarpena eginez, oraindik ere erabilitako kontzeptuez gain, hala nola gorputz-eskema (*Schilder*), koordinazio dinamikoa...

Eta 1969an *Educación Psicomotriz y Retraso Mental* liburuaren argitalpenarekin psikomotritateak bere autonomia lortzen du eta hezkuntzako aktibitate original bat bilakatzen da, bere objektu eta baliabide propioekin.

Urte horretan bertan *Escuela Municipal de Expresión* irekitzen da Bartzelonan, non Frantziako eragina nabaritzen den *Lapierre* eta *Aucouturierren* parte hartzeari esker, haien seminarioekin.

Bi autore hauek, diziplina hau irakasleen artean osasun arloko profesionalen artean baino hedatuagoa egotea lortzen dute, Frantzia ez bezala.

1985ean, Eskola Integrazioa ezartzean, Hezkuntza Bereziaren arloan Psikomotritate eta psikomotritzailea ezartzen dira, azken hau zenbait interbentzio berhezitzailetan profesional espezializatu gisa.

#### 1.1.5 DISZIPLINAREN APLIKAZIO ESPARRU EZBERDINAK

- **Hezkuntza- eta prebentzio praktika psikomotorra**

André Lapierre eta Bernard Aucouturier hasitako *Educacion vivenciada* ikusmoldeetik jaiotzen da, mugimendua haurtzaroko garapeneko elementu aldaezintzat dutelarik. Jean Le Boulch edo Pierre Vayer bezalako autoreek joera hau indartzen dute. Psikomotritate praktika norbanako osasuntsuei bideratuta dago, eskola arruntaren markoan, aktibitate eragilea eta jolasetik

abiatuta, garapena estimulatuko duten elementuek aberastutako ingurune batean talde lanean.

Eskola oinarri duen aplikazio bat da, pertsonaren garapenerako eta ikaskuntza ororen abiapuntu bezala. Horrela 3 gaitasun hezten dira, gorputzarekiko sentimenak, hautemate gaitasuna, gorputzeko eskema osatzen lagunduko duena eta ordezkatzeko gaitasuna, zeinu grafiko edo sinboloen bitartez mugimenduak errepresentatzea inplikatzeko duena.

Umeak lan hau gehiago aprobetxa dezan, beharrezkoa da psikomotritate maila egoki batean garatua izatea, ahozko komunikazioa ongi jakitea eta heldutasun psikoafektibo maila bat.

- **Berhezkuntza psikomotorra**

XX. Mende hasierako Frantziako haur neuropsikiatriaren planteamenduekin jaiotzen da eta Wallonen ideietatik abiatuta garatzen da, Ajuriaguerra, Diatkine, Soubiran eta Zazzoren ekipoak emandako bulkadarekin, gaur egun daukan nortasun klinikoa ematen diotela. Garapenean atzerapenak edo nahasmenduak aurkeztu dituzten norbanakoekin lan egiten da eta hauen tratamendurako gorputza erabiltzen da. Interbentzioa espezialista batek egin beharra du (psikomotritzailea), prestakuntza zehatz batekin gorputza bitarteko duen zenbait teknikekin.

Heziketa Berezian ematen da, eskolan edo banakako tratamenduan. Kasu honetan ikaste prozesua aldatuta dago eta umeak laguntza bat behar du prozesuarekin dituen zailtasunak gainditzeko.


Berhezkuntza ere kontsideratzen da Curriculumeko aspekturen bat dagokion momentu kronologikoan lortzen ez denean eta ondoren ikastaldi berezitako balditzetan berrekiten den kasua.

- **Terapia psikomotorra**

Pertsonaren nahasmenduak, nahiz umearena nahiz helduarena, nahiko nabariak direnean eta ez dira ikastaldiaren arazo bat soilik, baizik eta nortasunaren nahasmendu larri bat dakarrenean. Interbentzioa banakakoa da eta metodologia berezia suposatzen du kasu bakoitzean.

Psikosia, neurosia, autismoa, burmuineko ezusteko minak, adimen urriko helduak, andeatutako agureak, elikaduran nahasmenduak... dituzten populazioan aplikatzen da.

Horrelako interbentzio bat egiten denean, terapeuta oso prestatua egon behar du teorikoki zein maila praktiko eta pertsonalean.



**1. Irudia.** Disziplinen aplikazio esparru ezberdinak

### 1.1.6 PSIKOMOTRIZITATEAREN BILAKAERA

Psikomotrizista guztiek ez dute modu berdinean lan egiten. Hau da, psikomotrizitatea lantzeko metodo eta eskola ezberdinak daude. Metodo edota eskola hauen sortzaileak ugariak dira, eta bakoitza euren metodologia eramaten dute aurrera.

Psikomotrizitatearen bilakaerari dagokionez, psikomotrizitatearen hasiera metodologia gidatuan oinarritzen zen. Pedagogia edo metodo klasikoaren bitartez izendatua izan dena.

Metodologia gidatuaren helburua haurren elkarrizketa, norberarekiko elkarrizketa garatzea da, eskola ikaskuntzak areagotu ahal izateko. Modu horretaz, jokabidea erregulatuz joango da gorputzaren bitartez egingo diren zenbait jardueraren bitartez.

Saio hauetan jarduerak zehatzak eta espezifikoak izango dira, gorputzaren jokabide zuzen bati zuzenduak hala nola lateralitatea, tonoa, oreka...

Ebaluatzerako orduan, hasierako ebaluaketa egiten da, esku-hartzea baino lehenagokoa eta ondoren bukaerakoa egiten da, jarraipena baieztatuko duena. Metodologia gidatuaren autorerik ospetsuenak hauek dira: Ajuriaguerra, Picq, Vayer, De Fonseca...

Beste metodologia mota bati dagokionez, Bernard Aucouturierrek asmatutako hezkuntza eta prebentzio praktika psikomotorra dugu gaur egun metodologia ospetsuenetariko bat.

Metodologia honek haurren komunikazioa, sormena garatzea du helburu, haurrak duen adierazkortasun psikomotrizia eta saioan sortzen diren zenbait proposamen libreen bitartez.

Helduaren jarrera bertan, ez da metodologia gidatuaren berdina. Heldua ez da saioaren bozeramailea izanen, ez du saioa gidatuko. Hirugarren plano batean kokatuko da eta haurra behatzen egongo da denbora osoan, eska dezakeen edozein eskaeren zain.

Hauek dira psikomotrizitate klasikoaren eta bizipenezko psikomotrizitatearen arteko aldeak. Alde hauek taula baten bitartez isladatuko ditut.

### 3. Taula. Psikomotrizitate klasiko eta bizipenezkoaren arteko alderaketa

<b>PSIKOMOTRIZITATE KLASIKOA</b>	<b>BIZIPENEZKO PSIKOMOTRIZITATEA</b>
Analitikoa	Globala
Ebaluaketen bidez, aurrez bururatutako haurren ideiak edukitzera egiten da.	Ez da aurrez bururatutako ideiarik edukitzen, haurrari jarduten uzten zaio behar sakonenak ezagutzeko, plazer sensoriomotorretik eboluzionatzeko.
Mugimendurako objektutzat gorputza	Gorputza mugimenduaren menpe

hartzen du.	jartzen du, gorputz espresioaren menpe.
Keinuak eraginkorki mekanizatzerantz egiten du ekintzak.	Ekintza mugimenduaren izaera adierazkorrarena da, sormena nabarmenduz.
Eredu bat definitzen duten trebatze programak proposatzen ditu, zeinari gorputza egokitu behar zaion.	Haurrari egoerak proposatzen zaizkio eta honek bere gorputzaren gaitasunak aurkitu behar ditu, keinu berriak egiteko eta sentimendu eta emozioak adierazeko gai izan behar da.
Denbora-espazioa arteko emozioen erabilera bat lortu nahi du.	Nozio hauek nozio abstraktuago eta garrantzizkoago batzuen eraikuntzara zabaltzen dira.
Eduki motrizak helburua dira.	Eduki motrizak komunikazioan, pentsamentuan eta sorkuntzan garapen bat lortzeko baliabide bat dira.

"Nada hay en el niño mas que su cuerpo como expresión de su psiquismo." (H. Wallon, *Obra*)

## 1.2 PRAKTIKA PSIKOMOTORRA (BERNARD AUCOUTURIER METODOLOGIA)

### 1.2.1 BERNARD AUCOUTURIERREN BIOGRAFIA

Bernard Aucouturier 1934 jaiotzen zen, Tours-en herriaren ondoan, Frantzia. Bere gurasoak irakasleak ziren eta bera familiako txikiena zen. 1956 ezkondu zen eta bost haur izan zituen. Bere lehenengo urteetan bere gurasoek jarraitzen zuten pedagogia bizi izan zuen, Freinetena haien zuzen ere, Aucouturier libre izan zen jolasteko, eskolara ez joateko, natura ikertzeko... bere gurasoen lanez kanpoko jarduerak bere bizitza markatu egin zuten, aita, kirolaria, zinema animatzailea, antzerkia, bere ama politikan aritua.



**2. Irudia.** Bernard Aucouturier

Bere lehenengo ikasketak ez zitzaizkion gustatu eta kirolaria zelarik, gorputz heziketako ikasketak egiten hasi zen. Ikasketa hauen bitartean irakasle batek beregan eragin nabaria izan zuen, Jean Le Boulch doktorea, gorputz heziketa Suediarra eta heziketa fisikoa orokorrean zalantzan jartzen zuena. Orduan beste autore askorekiko interesa hartzen hasi zen P. Vayer, A. Lapierre-en, Freud, Dolto, Ajuriaguerra, Montessori, Dewey, Decroly, Freinet...

Gorputz heziketako ikasketak ez zitzaizkion gustatu oso mekanikoak eta fisikoak zirelako, gustuko izan zuen bakarria mugimenduaren pedagogia izan zen eta orduan deskubritu zuen irakasteak pertsona bezala osatu egiten zuela.

Argelian izan zen militar moduan eta bertan basakeri asko ikusi izan zituen, horregatik bi eskola sortu zituen, gizartea laguntzeko nahian.

1961 gorputz heziketako irakasle izan zen Lyon-en. Geroago gorrak ziren haurrekin lan egiteko talde batetik deitu zioten, oso interesgarria iruditu zitzaion eta bide horretatik joatea erabaki zuen. Azkenik haur hezkuntzan zailtasunak zituzten haurrekin lan egiteko lanpostu bat eskatu zuen bere bizi zonaldean eta horretan aritu zen bere azken egunak iritsi bitartean.

### *1.2.2 BERNARD AUCOUTURIERREN PRAKTIKA PSIKOMOTORRAREN DEFINIZIOA*

Praktika psikomotor hezitzailean Aucouturier, Dupré, Wallon, Piaget, Ajuriaguerra, Winnicott, Emmi Pikler... bezalako psikologo eta neurólogo handien aportazio teorikoetatik abiatzen da. Oinarri teoriko honek bide ematen dio Bernard Aucouturierrri praktika psikomotor zehatz bat ezartzeko, haurrari bere biziko lehen urteetan garapen psikologiko eta motorren eboluzioan lagunduko diona.

Aucouturierrren Psikomotrizitate Praktika hezitzailea haurrari bere hezte hazkuntzan laguntzen dion esku hartze hezitzaile ez zuzentzaile eredu bat da. Adierazkortasun motriz, izateko eta egoteko eratik (bakoitzarengan bakarra) abiatzen da eta espazio-denbora eremu batean garatzen da, non umeak pultsio eta emozioetik deszentrazio eta pentsamentura garatzen duten.

Beraz, Aucouturierrren heziketa praktika psikomotrizita (PPA), esku-hartze heziketa gisa kontsideratu dezakegu, haurraren heltze hazkundean lagunduko duena. Praktika psikomotor hau adierazkortasun motrizta izanen du abiapuntu, izateko eta egoteko norbanakoaren forma gisa eta garatzeko denborazko zein espaziozko gailu baten beharra izango du. Haurrak bertan sentituko dituen bulkada zein emozioen bitartez deszentrazio eta pentsamendu aldira igarotuko da.

Hau da, adierazkortasun motrizaren bitartez haurraren heltze psikologikora iristea izango du helburu nagusi praktika psikomotorrak.

Psikomotrizitate praktikak pertsonaren garapen armonikoari mesede egiten dio nortasunaren hazkuntza eta garapenen prozesuak laguntzen dituelako; berezko jolasa erabiltzen du, mugimendua, ekintza, eta errepresentazioa, haurraren ekintzaren plazerraren bidez, mundua aurkitu eta konkistatzen baitute eta emozioak, bizi afektibo sakona eta fantasiako mundua adierazi.

Psikomotrizitate Praktikaren helburuak betetzeko, espazio eta denboren pedagogian oinarritutako metodología bat proposatzen du, haurrari prozesu hau eremu zehatz batean gauzatzea baimentzen diona. Eremu hau, psikomotrizitate gela da.



“Haurrak ez du ikasteko jolas egiten, baizik eta jolas egiten duelako ikasten du” eta hau leku oso berezi batean gertatzen da: psikomotrizitate gela, gune aberats bat, ugaria eta kolorez betea, heldu erne baten presentziarekin. Honek haurren iharduerak, zailtasunak, beldurrak, aurkikuntzak, nahiak, plazerrak, eta emozioak hartatzen ditu eta heltze prozesuan lagundu. Psikomotrizitate Praktikan espezialista, formakuntza prozesu guztirako prestatzen da behatu, hartatu eta haurren espresio motrizari zentzua emateko haurren behar sakonei erantzun egokiak eskaintzeko.

*Aucouturierrek psikomotrizitatearen esku hartze eredu bat diseinatzen du. Honek egitura motriz, kognitibo eta afektiboetan eragiten du, heltzeari mesede egiten dio eta beraz haurren garapena, ikaskuntza instrumentaletara iristea ahalbidetuz.*

### 1.2.3 PRAKTIKA PSIKOMOTORRAK HAURRENGAN DUEN GARRANTZIA

B. Aucouturierren jarduera psikomotorrean dauden *helburuak* hauek dira:

- Haurrari BERA IZATEN lagundu behar zaio, horrela SORTZEKO gai izan dadin. Horretara iristeko haurra entzuna, onartua, lagundua, bortxatu gabe eta helduaren nahietara makurtu gabe sentitu behar du bere burua.
- Pertsonen arteko harremanak sustatu, komunikazioa eta integrazioa bermatuz.
- Piagetek dioen pentsamendu eraginkorrerako gertutasun eta gaitasuna.
- Bere gorputza bizitu eta ezagutu eta honen osotasuna landu, irudiaren eta gorputz-eskemaren sintesi bat bezala (Aucouturier).
- Koordinazio dinamiko, orokor eta berariazkoak lortu eta sendotu.
- Albokotasuna, lateralitatea baieztatu.
- Espazio eta denboran kokatu.
- Emozionalki seguruago sentitu, norbere limite eta gaitasunak ezagutzearen ondorioz.
- Oinarrizko eskola-ikastaldietarako, beharrezko gaitasunak prestatu.

Beraz, Aucouturierrek zera lortu nahi du:

- Haurra ikasteko egoeran jartzea.

- Haurra bilaketa eta sorkuntza egoeretan jartzea, emozionalki heltzeko eta indukzio logikoetara iristeko.

Hau da, adierazkortasun motrizaren bitartez haurraren heltze psikologikora iristea du helburu nagusi praktika psikomotorrak.

#### *1.2.4 PRAKTIKA PSIKOMOTORRAREN OINARRIZKO AIPATZE TEORIKO-PRAKTIKOAK*

Aipatze hauei esker, profesionalek haurren zenbait jokabide konplexuen ezintasunei aurre egitea lortzen dute.

Aipatze teoriko hauek askatasunez pentsatzeko bide gisa azaltzen dira, baita profesionalek jarduteko edota eratzeko bide gisa.

Aipatze teoriko eta praktikoen artean ondorengoak bereiz ditzazkegu: ekintza fantasmak, gorputzaren galeraren atsekabe zaharrak, adierazpen motrizaren eta azkenik adierazpen motrizaren nahasteak.

- **Ekintza fantasmak**

Haurraren jardueraren zentzu inkontzientea ulertzeko aukera ematen du. Ekintzaren mamua ekoizpen imaginario bat da, ilusio bat, pulstuzko ekintzaren plazerra da, ama-eme/alabaren arteko harremanetik sortzen dena. Ekintzaren mamuak 6.hilabeteetan sortzen da eta gainontzeko aldi psikologikoen eustea suposatzen dute.

Ekintzaren mamu ezberdinak ezagutzen dira, adibidez, presiotik sortutako ekintzaren mamua (heltzearena), espazioan zehar gorputza mugitzetik sortutakoak (altxatzea, hegan egitea, erortzea), uzkitik kanporatzearen ondorioz sortutakoak (ematearen mamua, jasotzearena eta gordetzearena)...

Fantasma hauek umeei haien jardueraren sinboliko eta ludikoen bidez jartzen dituzte martxan, eta amarengandik bereizteak sor diezaiekeen ezinegona gainditzen laguntzen die.

- **Gorputzaren galeraren atsekabe zaharrak**

Bizitzako lehen sei hilabeteetan sortzen dira, adibidez, mugarik ez edukitzea, erortzearen atsekabea, hausturaren atsekabea... atsekabe hauek, haurrak bizitzako lehen hilabete hauetan gurasoekin duen harremanaren arabera

desagertuz doaz. Dena den, atsekabe hauek desagertzen ez badira, gorputzaren funtzioak eta funtzio begetatiboak desegonkortzen dituzte; eta horrekin batera oreka, koordinazioa eta presioa bezalako funtzio erlazionalak. Horrekin batera, atsekabe zaharrek ekintzaren mamuen garapena ekiditen dute, eta horrek garapen psikikoaren murrizketa dakar.

Beraz, ondoriozta dezakegu umeen arazo psikomotrizak atsekabe zaharren ondorioz sortuak direla, gurasoekin izandako loturaren eraginez umeek gaintitu ez dituztelako.

- **Adierazpen motriza**

Haurrek ekintzaren mamuak maila sinbolikoan eguneratzeko duten modu toniko-emozionalari deritzo. Esanahi bikoitza duela esan dezakegu: alde batetik, maitasunezko objektua (gurasoak) birsortzen du, eta aldi berean erasotzen, suntsitzen edo urruntzen du. Adibidez, haur bat behin eta berriz mahai baten gainera igotzen bada plazerra sentitzen duelako da. Baina inkontzienteki bere altxatzearen ekintzaren mamua bizitzen ari da; zeinak aukera ematen dion, alde batetik, ama birsortzeko eta beste aldetik, berarengandik urruntzeko.

- **Adierazpen motrizaren nahasteak**

Agresibitate ez sinbolizatua, inhibizioa edo errepikapen motrizak eta fijaziotoniko-emozionalak bezalako ekintzak, nahasteen sintomak izan ohi dira. Nahaste hauek oinarrizko erlazioan inkontzienteki sortutakoak dira; haurrari ez diote segurtasunik ematen eta den bezalakoa izatearen plazerra murrizten dio.

#### 4. Taula. Praktika psikomotorraren oinarrizko aipatze teoriko-praktikoak

### PRAKTIKA PSIKOMOTORRAREN OINARRIZKO AIPATZE TEORIKO- PRAKTIKOAK

**Ekintza fantasmak**

Ekintza fantasmak ama eta seme/alabaren arteko harremenetatik

	sortzen dira, gainontzeko aldi psikologikoen euskarri gisa agertuz. Modu honetaz, haurren jarduera eta jolas guztiak sustatuko dituzte.
<b>Gorputzaren galeraren atsekabe zaharrak</b>	Arazo psikomotrizak gurasoekin izandako loturaren eraginez sortzen dira, gorputzaren funtzioak eta funtzio begetatiboak desengortuz.
<b>Adierazpen motriza</b>	Haurren ekintza mamuak maila sinbolikoan eguneratzeko modu toniko-emozionala da.
<b>Adierazpen motrizaren nahasteak</b>	Haurrari segurtasuna kendu eta plazerra murrizten dion nahasteak dira, inkontzienteki sortuak izaten direnak. Agresibitatea, inhibizioa esate baterako.

### 1.2.5 PRAKTIKA PSIKOMOTORRAREN OINARRIAK

Praktika psikomotorra ulertu ahal izateko, Bernard Aucouturierrek hainbat oinarri hartzen ditu kontutan, eta hauek bere metodoaren oinarriak izango diren gakodun hitzak izango dira. Beraz, aurrera eraman zuen metodoa ulertu ahal izateko kontzeptu hauek argi eta garbi izan behar ditugula esan beharra daukat.

Hori dela eta jarraian kontzeptu hauek suposatzen dutenaren inguruan arituko naiz.

- **Globalizazioa**


Kontzeptu honek zera adierazi nahi du: haurra izanen da hain zuzen ere bere ekintza propioaren edota ikaskuntza prozesuaren erdigune nagusia eta psikomotrizista ordea, ikaskuntza hauen bitartekaria izango da. Ikaskuntza

prozesuaren laguntzailea hain zuzen ere. Haurra beraz zerbait globala bezala ikusi beharko dugu, bere kabuz egiten duen ekintza guztien protagonista.

Gainera haurraren irudia globaltzat hartzen da kontuan. Haurraren alderdi intelektual eta kognitiboak kontutan hartzen dira baita alderdi emozionala, afektibo zein soziala ere. Disziplina honek psikomotrizistaren jarrera finkatzen du, psikomotrizista izango baita haurraren edota hurrek aurrera eramango duten prozesu guztien bitartekari zein laguntzailea. Modu honetaz psikomotrizistak egon daitezkeen edozein arazoren aurrean neurriak hartu ahal izango ditu.

Aucouturierrek 7/8 urte bitartean ezarri egiten du haurraren adierazkortasun motriz, gaitasun kognitibo, motriz eta emozionalen batuketa gisa. Gaitasun hauen bitartez, haurra komunikaziorantz, sorkuntzarantz, eta pentsamendu operatoriorantz gidatuko du, psikomotrizitate gelaren espazioaren bitartez. Horretarako psikomotrizitate gelak hiru espazio ezberdin nabarmendu beharko ditu hala nola; gune sinbolikoaren espazioa, gune sensoriomotorraren espazioa eta azkenik urrutze gunearen espazioa.

Guzti honek haurrari bizipen global bat eta espontaneoak izatera lagunduko dio bai objektu zein gainontzekoekin, eta bertan elementu afektiboak zein emozionalak garrantzizkoak izango dira ezaguera berri baten jabetzaz gozatu ahal izateko. Hau da, haurra kanpo munduarekin izango dituen lehenengo harremanak, gorputz dimentsioaren bitartez gauzatuko ditu, hauek emozionalki oso kargaturik egonen dira eta dimentsio emozionalaren bitartez benetako errealitatearen ezagutza ezagutu ahal izango du, dimentsio kognitiboa martxan jarritz.



### 3. Irudia. Haurraren garapenean eragina duten dimentsioak

- **Berezko jolasa edota jolas espontaneoak:**

Hezkuntza-eta-prebentzio praktika psikomotorra Aurkikuntzaren Pedagogiaren (Pedagogia del descubrimiento) bitartez gauzatzen da, non haurra berezko jolasaren bitartez, bai objektu zein psikomotrizistak ematen dituen kontsigna batzuen bitartez, pentsamendu abstrakturantz abiatuko den.

Bizipenezko psikomotrizitatea kasu honetan zera esan nahi du: haurrari ez zaio ezer inposatuko, haurra izango da hain zuzen ere bere plazerra, desiran oinarrituz, bere bilakaera, eboluzioa baldintzatuko duena.

Beraz, jolasa praktika psikomotor honi dagokionez, ez da soilik disfrutatzeko dibertsio bat bezala ikusiko baizik eta jolasaren bitartez haurra den bezalakoa erakusteko balioko du, bai nork bere buruari zein besteei dagokionez.

Bestalde emozioak zein sentimenduak adierazteko ere balioko du jolasa, baita bere ingurua ezagutzeko bitartekari bezala. Bere gorputzaren bitartez zein objektuen bitartez ingurunearekin harremanetan jarriko baita. Jolasaren bitartez, haurra munduarekiko interpretazioak egin ahal izango ditu, modu horretaz ikaskuntzak sendotzeko aukera izango duelarik.

Aucouturierrek jolasa hiru dimentsiotan banatzen du:

1. Jolas sensoriomotriz edo ekintza jolasa: agertzen lehena da (0-2 urte bitarte). Jolas honek asimilatze funtzionalera eramaten gaitu.
2. Jolas sinbolikoa: (2-7 urte bitarte). Jolas mota hau hizkuntzarekin batera ematen da. Bertan haurra estruktura eta forma ezberdinak irudikatzen hasten da, errealitatea transformatzen eta objektuei bizitza ematen dien bitartean.
3. Jolas kognitiboa: (7-12 urte bitarte). Jolas mota honetan harreman sozialak finkatzen dira.

- **Aurkikuntzaren Pedagogia: (Pedagogia del descubrimiento)**

Pedagogia honetan eragina izan duten autoreek Lapierre eta Aucouturier izan dira. Pedagogia honetan haurraren gaitasunak kontuan hartuko dira, ikuspegi total batean apustu eginez, sintoma bakar batean zentratu gabe. Behar bereziak dituzten haurretan adibidez, ez dira dituzten ezgaitasunetan edota gabezietan zentratuko baizik eta haurrak berez egiten dituzten gauzetan zentratuko dira, hau da, oinarri bezala egiten dakitena, egitea gustatzen zaiena, edota motibazio sakonei erreparatuz egingo lukete lana.

Horregatik Aurkikuntzaren Pedagogian argi izan behar dugu, haur bakoitza mundu bat dela, eta haur bakoitzaren izaera, pertsonalitatea, zein unean uneko motibazioa, zein espresio mailak eragin handia izan dezaketela.

Hau da, *“ Toda practicante de la Psicomotricidad debe respetar la expresividad del niño, desde la mas limitada a la mas excesiva”*.

Berez egiten dituzten gauzen bitartez, haurraren izaeraren globalizazioa lortuko da, hiru dimentsioak, bertan eragina izango duten hiru dimentsioak, elkarren ondoan egongo direlarik; gorputz dimentsioa, dimentsio emozionala zein kognitiboa hain zuzen ere.

Aucouturierrek edozein ekintza psikomotorra izan daitekeela uste du, pentsatzea ere ekintza psikomotorra dela uste du, modu horretan zuntz tokikoak martxan jartzen direlako.

Laburbilduz, praktika psikomotorra, haurrari zuzenduriko praktika bati dagokio, ikusten eta entzuten denaren arteko hitzaldi bat bezala, espazio zein haurraren historioan zehar kokatuta egongo dena.

Haurraren izakera, bere adierazkortasun psikomotorrean espazioarekin erlazioan, hiru atal hauen menpe dago.

1. Ikuspegi neuromotorra: eskuragarri uzten digu koordinatzeko aukera motrizak maila horizontalaren, bertikalaren, objektuen... gainean.
2. Ikuspegi afektiboa: haurraren afektibitateari dagokion guztia antzematen laguntzen digu. Hau da, plazerra eta plazer eza laguntzen duen emozioa espazioan.
3. Dimentsio kognitiboa: haurra objektuekiko duen erlazioari buruzko informazioa emango digu. Hau da, haurra espazioa nola aurkitzen duen, ea espazio hori nola integratzen duen, materialen erabilpena nola egiten duen, objektuak nola antolatzen dituen, zein motatako mailarekin inplikatzeko da horien aurrean... Azken finean, inguruarekin duen inplikazio maila nolakoa den adieraziko digu.

Haurraren eboluzioan (0 eta 7/8 urte bitarteko denboran), azpimarratzea beharrezkoak diren bi etapa daude.

Alde batetik, nork bere buruaren irudiaren ezagutzea eta bestetik deszentrazioaren etapa.

- *Nork bere buruaren irudiaren ezagutzea: (10 / 18 bitarteko hilabeteetan)*

Ispiluaren aurrean jarriz gero, ezagutzen duen irudia da, hau da, nork bere buruaren irudiaren ezagutzea.

Ezagutze honek gerora egingo dituen irudikatzeen eta funtzio sinbolikoaren gaitasunak baldintzatuko ditu, baita hizkuntza, operazio intelektual, sozial zein kulturalak. Eta honek izugarritzko erlazio zuzena izango du haurra amarekin izan dezakeen edo izandako harreman estuarekin.

- *Deszentrazioaren etapa: (18 hilabetetik 7/8 urte bitartera)*

- Etapa honetan haurra mundura batu nahiko da. Piageten asimilazio prozesuarekin bat egiten du.



- 7 eta 8 urte bitarte horretan, inguratzen duen orotaz independente izateko gaitasuna izango du.
- Jolas sinbolikoa desagertzen joango da pentsamendu operatorioa agertzen joaten den heinean.
- Haurra bere gorputzaren kontzientziaren irudi ezberdina izaten hasiko da, hau da, morfologiaren inguruan kezkatzen hasiko da eta modu horretaz orain arte bizitako praktika psikomotorra alde batera utziko du.

Praktika Psikomotorrak hiru *helburu* nagusi ditu:

- **Hezigarria**

Adierazpen psikomotrizaren garapena hobetu hiru helburuak betetzera abiatuz: komunikazioa, sorkuntza, eta ekintza pentsamendua edota pentsamendu operatorioa. 3 etea 7/ 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

- **Terapeutikoa**

Haurrarekin komunikazioa hobetu, berrezarri.

- **Berhezigarria**

Berrezarri komunikazioa, sinbolizazioa eta eskola ikaskuntzen sarrera.

#### *1.2.6 PRAKTIKA PSIKOMOTORRAREN HELBURUAK*

Hezkuntza eta prebentzio praktika psikomotorraren xedea haurraren adierazkortasun psikomotriza hobetzea du helburu, komunikazioa, sorkuntza eta ekintza pentsamendu edota pentsamendu operatoriotik pasatuz. Hau da, “Jarduteko atseginetik pentsatzeko atseginera” igarotzea ahalbideratzen duen heldze-ibilbide gisa pentsatuta dago.

- Komunikazioa
- Sorkuntza
- Ekintza pentsamendua edota pentsamendu operatorioaren sorkuntza

- **Komunikazioa**

Komunikazioa jaiotzatik garatzen den zerbait da, ama eta haurren erlazio toniko-afektiboaren bitartez, oinarri ez berbal baten oinarritua, adierazkortasun psikomotorren oinarriak sendotuz. Adierazkortasun psikomotorriari buruz ari garenean, forma ezberdinak kontutan har ditzakegu hala nola; tentsio tonikoa, mugimendua eta gorputz keinua esate baterako.


Adierazkortasun psikomotorri honekin haurra kanpoko munduarekin askatasunez irekitzen da eta honek nork bere buruaren baieztapena bermatzen laguntzen du, bere gorputza, bere izaera, bere pertsona espazio baten menpe askatasunez uzten duelarik.

Bestalde, haurra kanpo mundu honekin askatasunez jokatzen hasten denean, bere gorputza propioaren jabetzaz kontziente izaten hasten da, amarekiko erlazio estu hori galtzen hasten den heinean. Honek izugarritzko lotura dauka ekintzak edota mugimenduak sortzeak suposatzen duen plazerrarekin.

Horrela etapa edota Piageten estadio ezberdinetatik igarotzen da haurra. Hala nola, pasibotasun estadiotik ekintza estadiora zeharkatzen duena.

Komunikazioa praktika psikomotorrean bestelako gauza bat suposatzen du. Kasu honetan haurra eta terapeutararen arteko erlazioan eboluzioa suposatzen duen faktore garrantzitsuenetariko bat da. Komunikazioaren bitartez terapeutak haurrari, edota haurraren gauza asko transmititu ahal izango dituelako. Hala nola, segurtasuna haurra behar duenean edota terapeutararen etengabeko disponibilitatea, haurrak behar duen edozein egoera edota uneetarako. Bestalde komunikazio honek, terapeuta eta haurren artean entzutea dagoela bermatuko du, eta hau da hain zuzen ere haurra bilatzen ari dena.

Beraz, eta ondorio bezala esan dezaket, komunikazioaren helburua honakoa dela praktika: haurra komunikazio egoera batean bizitzen duena ezagutzea da. Hori horrela bada, haurra komunikatzen baldin bada, maila afektiboan eboluzionatzen ari dela esan dezakegu, modu hortaz berdinkideengana, helduarengana gehiago hurbilduz. Modu horretaz, sortzaileak izatera iritsi direla esan dezakegu.



#### 4. Irudia. Zer da komunikazioa?

- **Sorkuntza**

Kasu honetan sortu edota sortzeak zera esan nahi du:

- Sortu kasu honetan biziraupen desirari, nahiari erantzutea esan nahi du, hala nola, norbanako zein bestearentzat sortzea hain zuzen ere. Azken finean komunikazioaren nahi edota desira hori komunikazioaren bitartez eraldatzen lortzea.
- Gainera kontutan hartu behar dugu, haurra berez ez dela sortzailea, baizik eta soilik sortu edota kreatu egiten duela bere nahi edota desirari zerbaitek erantzuten duenean. Beraz, hauxe izango da psikomotrizistaren helburuetariko bat; desira edota nahi hori garatzea jolasaren bitartez.

Haurraren jolasean bi aspektu ezberdin bereiztu daitezke:

- a) Errealitatearen imitazioa, ikaskuntzaren emaitza gisa.
- b) Haurraren ekarpen pertsonala.

Modu horretaz, haurra dakiena nabarmenduko du, bai zer eta nola dakien, baita ze modutan bizitzen duen egoera hori. Hau guztia hunkiberatasun, afektibitate edota gogo egoeraren bitartez identifikatu ahal izango dira.

Gertaera horiek adierazpen motriz ludikoaren bitartez manifestatzen dira.

Hori dela eta sorkuntza edota jolas sinbolikoaz hitz egin daiteke baldin eta jolasa errealitatearengandik bereiztu eta egoera zein ezaguera pertsonal baten adierazpen edota keinu bat baldin bada. Honekin zera esan nahi dut, psikomotrizitate saioa hain zuzen ere hau egiteko espazio egokia bilakatuko dela.

- **Ekintza pentsamendua edota pentsamendu operatorioaren sorkuntza**

Oinarrizko bi prozesuek izugarrizko eragina dute bertan:

1. Itzulgarritasuna
2. Piageten analisi eta sintesi prozesuak.


*Itzulgarritasuna* deszentrazioaren eskuratze ahalmenarengatik mugatuta dago.

Itzulgarritasuna posible egiten du haurra beste pertsonaren tokian jartzea, eta horretarako ezinbestekoa da bai objektu zein beste pertsonenganako distantzia hartzea.

Horrela, komunikazioa itzulgarritasunaren oinarria gisa agertu beharko da. Modu horretaz komunikazioak zera suposatuko du: besteenganako entzutea, eta honek “afektibitatearen jabetza” kontrolatua izatea bermatuko du, gure gehiegizko afektibitateak besteona inbaditu gabe.

Bigarren prozesuari dagokionez, haurra *Piageten analisi zein sintesi prozesuetara*, jolas sinbolikoko objektuen ikerkuntza emozionalari esker heltzen da. Horretarako objektua osatzen duten elementuen analisia egin beharko du, objektu hori berriz ere berreraiki edota objektu horrek emandako nozioen eskuratzea lortu nahi baldin badu. Hala nola; kontserbatze ideia edota seriazio ideiak eskuratu nahi baldin baditu.

Hori dela eta, praktika psikomotorra hizkuntza eta materialen bitartez zera posible egiten du; alde batetik haurrari analisisira iristeko aukera ematen dio, berriz ere sintesia egiteko aukera emanez, hori beti ere dinamika baten barne baldin badago.



## 5. Irudia. Praktika psikomotorren helburuak

### 1.2.7 PSIKOMOTRIZISTAREN BEGIRADA: JARRERAK


Lapiarren ustez praktika psikomotorren oinarria hauxe da: *“se basa en el juego libre, permisivo, en una actividad espontanea que se desarrolla y organiza progresivamente a partir de los objetos puestos a disposición de los niños y niñas. Es un juego sin argumento impuesto, de forma que permite el libre curso a la imaginación”*.

Beraz, jolas librea taldean garatzen uztea da, berezko jolasa, kontsiga zehatz eta auzipetzerik gabekoa. Hemendik aurrera jarduera espontaneoak garatuko dira, bakarka zein taldeka, bakoitzari, haurrari, bere nahi edota desiraren zein irudimenaren arabera gauzak eginez.

Beraz hauek dira psikomotrizistaren ekintza sistemaren ezaugarriak: kide sinbolikoa, empatia tonikoaren entzutea, eta azkenik lege eta segurtasun sinboloak.

Hauek jarraian zer suposatzen duten adieraziko dut.

**5. Taula.** Psikomotrizistak hartu beharreko jarrerren ideia nagusiak



<p><b>KIDE SINBOLIKOA</b></p> <p>"Jolastu ahal izatea haur bat izango bagina bezala, baina haurra izan gabe"</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errespetatu, gain hartu (acoger)</li> <li>• Lagundu, akonpañatu</li> <li>• Teknikotasuna</li> </ul>
<p><b>ENPATIA TONIKOAREN ENTZUTEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Entzutea (escucha)</li> <li>• Emozioak hautematea</li> <li>• Egokitze tonikoa</li> </ul>
<p><b>LEGE ETA SEGURTASUN SINBOLOAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Limiteak jartzeko gaitasuna</li> <li>• Eutsi eta autoritatea izan</li> </ul>

- **Kide sinbolikoa**

Psikomotrizista kasu honetan ez da haurraren jolasean kide edota lagun bat izango baizik eta bere jolasean, sortzen duen jolasean, kide edota lagun sinbolikoa bilakatuko da.

Empinetek zera pentsatzen du kide sinbolikoaren inguruan: "el compañero simbólico es el que se escribe en el juego del niño no como un jugador sino como un agente de un recorrido que simboliza en la petición del niño ciertos roles pero no se deja encerrar en ninguno".

Sinbolizazioruntz eramateko eginkizun hau, hau da, errealitatearenganako distantziamendu hau sortzearen eginkizun hau, gurasoek edota beste heldu batzuek jarduten duten eginkizunarekin ez du zerikusirik, normalean guraso edota heldu hauek haurrekin jolastean, euren desira eta plazerretan giltzaperatutak geratzen baitira.

Beraz, psikomotrizista beti kide sinboliko gisa egon behar du. Hau da, psikomotrizista edozein haurra hartu beharko du, eta jolasak errepikatzearen plazerra onartu beharko du. Ez du haurrengandik jardungo, ez du estimulatuko, ezta inbadituko ere ez. Soilik lagunduko du, inbaditzeko arriskuan erori gabe.

Beste modu batez esanda, psikomotrizista haurra errespetatu, gain hartu, entzun eta ulertu beharko du, haurra momento horretan behar duen oinarri emozionala eman ahal izateko.

Beraz kide sinbolikoa modu honetaz ulertu daiteke: haurra bizitzen ari den egoeraren egokitzea. Guzti hau egin beharreko moduan egin ahal izateko, helduak formakuntza prozesu baten beharra izan beharko du, horrela konprobatu ahal izateko helduak zein punturaino egokitu ahal daitekeen haurraren egoera ezberdinetara, euren egoera emozionalek suposatzen duten zaman erori gabe.

Horretarako hiru jokabide mota bereiztu ditzazkegu. Alde batetik jokabide simetrikoa, jokabide asimetrikoa bestetik eta azkenik disimetrikoa.

1. Jokabide simetrikoa: haurrak egiten duenaren berdina egitean datza.
2. Jokabide asimetrikoa: haurrak egiten duenaren ezberdina egitean datza.
3. Jokabide disimetrikoa: haurrak egiten duenaren berdina edota ezberdina egitean datza, unean uneko behar eta komeni zaigunaren arabera.

Beraz, psikomotrizista kide sinboliko bat bezala parte hartuko du psikomotrizitate saioan, bertan helburu konkretu batekin inskribatuko delarik, kasu honetan haurraren heltzean mesede egitea. Hau da, haurraren jolasean laguntzea, akonpanatzea... bestelako helburu batzuk lortu daitezen.

Horretarako haurraren jolasean sartzea ezinbestekoa izango da, beste kide bat bezala izango bagina bezala. Erlazio hori guztiz ezberdina izango da, askoz ere berdina, inongo trabarik gabekoa. Erlazio horretan helduek erakustearen boterea galduko dute eta garrantzitsuena komunikatzea, behar denari erantzutea... izanen da. Honetarako eta teknikotasuna kontuan harturik hauek dira psikomotrizistak hartu beharreko zenbait estrategia orokor.

- *Estrategia orokorrak*
  - Elkarlana eta akordioa: jolasteko, espazioak montatzeko, biltzeko... gaitasun honek bestearen desira eta nahiaren onarpena egotea suposatzen du.
  - Sorpresa, ustekabe: begiradan, ahots tonuan. Ustekabea zera suposatzen du: ezagutzen ez genuen zerbait aurkitzea. Esate

baterako; haurrak konkistaturiko lekuren bat... Estrategia hau haurra errefortzatu edo inhibitzea suposatzen du.

- Baieztapena: jokabide honen bitartez haurrari irudi kompetentzial batekin erantzuten diogu.
- Errefortzua: laguntza eskaintzeko ekintza horiekin identifikatzen ditugu, berbalak edota ukimenezkoak, kontaktuzkoak izan daitezke.
- Gonbidapena: haurrari zerbait egitera gonbidatzean datza.
- Probokazioa: haurra gonbidatzeko beste forma bat da. Gertutasunezko dinamika batean sartzeko gonbidapena.
- Euspena: limiteak ezartzerako garaian edota adierazpen motriza eutsi nahi denean. Hala nola; hiperaktibitate edota izaera erasokorrakeko alertak daudenean.
- Frustrazioa: jarduera estereotipatuak edota errepikakorrak hausteko.
- Imitazioa: beste pertsona batek egiten dituen jokabideak imitatzean datza, beste pertsona batekin identifikatzea ...
- Afektibitatea: erlazio guztien zimentua. Erabilgarria izango dena haurren beharrak asetzeko eta euren helduearekin jarraitu ahal izateko.
- Autonomia bermatzea: Hauxe izango da praktika psikomotorren helburuenetariko bat. Haur guztiek egiten dituzten ekintza ororen jabe izatera hel daitezten aritu behar gara, honek guztiak haurraren helduean eta heldutasunean eragina izango duelarik.
- Segurtasuna mantentzea saioan zehar.

Teknikotasunez jokatzea orduan, izugarrizko garrantzia izango du praktika psikomotorrean.

- *Teknikotasuna*

Psikomotrizistarengandik erabateko berrikuntzan dauden sormenezko estrategiak dira. Estrategia hauek prestakuntza handia behar dute, teoría eta praktikaren ezagutzei dagokionez baita haurrenganako ezagutzei dagokionez ere.



Teknikotasuna bi printzipioen bidez burutzen da:

- Plazerra zein desiraren praktikaren jartzea

Haurra plazerra bizi ahal izateko, gorputz sentsazio eta egoera toniko-emozionalaren arteko bateratzea experimentatzea ezinbestekoa izango da. Sorburu propiozeptiboetatik abiatuta ( giharrak, tendoiak, giltzadurak) bidaltzen dizkiguten informaziotik plazer sensoriomotorra sentituz. Informazio propiozeptiboa zenbait jardueren bitartez jasotzen dugu hala nola; oreka, oreka eza, kulunkatzeak, jauziak, erorialdiak...

- Erregistro sinbolikoaren garapena: bi ikuspegi arabera

1. Erasokorrak diren ekoizpenen trataera: Agresioaren bitartez haurra sentitzen duen arbuioa, ulertua izateko beharra, entzunda izateko beharra adierazten digu. Guzti hau komunikazioari egiten dion dei bat bezala ulertu daiteke, modu horretaz bere izate existentziala hobetzen delarik.
2. Ekintza fantasmak trataera egitea ezinbestekoa da haurraren komunikazioaren berrezarpena egin nahi baldin badugu hori dela eta, haurra desblokeatu eta euren manifestazio konpulsiboen bilakaerara zuzendu behar dugu.

- **Enpatia tonikoaren entzutea**

Psikomotrizistak haurra egiten duena sinbolizatu, proposamenak egin, haurrak egindako eskaerei erantzun ahal izateko, alde aurretik haurrak esandakoa ulertu egin behar du. Honek zera suposatzen du: haurrak egiten duen edozein aldaketa tonikoaren aurrean erne egon behar duela psikomotrizista.

Beraz, entzutearen aldeko jarrera mantentzea suposatzen du; izateko era, gertu egoteko era, eta besteak bizitzen duenatik urrun egoteko era bizitzea suposatuko du eta hori izanen da hain zuzen ere; ENPATIA TONIKOA izatea. Modu horretaz bakarrik haurraren eskaerak asetu eta erantzun ahal izango ditugu.

Aucouturierrek zera dio: *“La actitud de escucha, supone la capacidad de recibir al niño, de aceptar lo que es, lo que produce, de sentir, de percibir sus armonías emocionales, como la expresión de una experiencia única, y sobre*

*todo de no dejarse invadir: esta manera de ser, de estar cerca y lejos de lo que vive el otro, es la empatía tónica, que solo permite responder justamente al niño”.*

Empatia tonikoaren bitartez psikomotrizistak zera entzuten du:

- Espazioa eta materiala egokitzeko modua, saioaren edota psikomotrizitate saioaren denboraren barruan.
- Bere jarduera propioen iraupena eta jardueren aldaketak suposatzen duena.
- Psikomotrizista edota beste pertsonenganako egokitzea. Hala nola; jarrera, mugimendua, hizkuntza, imitazioa, begirada...

Parametro guzti hauek haurra nolakoa den esango digute eta eboluzionatzeko eginbeharrekoak finkatuko dizkigute. Beraz, saio bakoitzean parametro guzti hauek behaturik eta kontrolatuak izan behar ditugu.

Beraz entzutea zentzu askotan eman beharko da.

- *Entzutea*

Haurraren gorputzari dagokionez, haurraren barne munduko adierazkortasunari dagokionez, bere nahi edota desira inkontzienteei dagokionez, bere komunikatzeko zein egiten dituen eskakizunei dagokionez.

Entzutea beraz honetarako izango da garrantzitsua:

- Entzutea deszentratzeko gaitasuna emango digu, modu horretan beste pertsonaren tokian kokatu ahal izateko gaitasuna eskainiz.
- Haur bakoitza nola sentitu daitekeen informazioa emango digu.
- Adierazpen bakoitzari esanahia emateko.
- Haurraren eboluzioan eta eboluzionatzen, garatzen lagunduko dion erantzun bat bilatzen lagunduko digu.
- Interbentzioa modu batez ala beste batez egiteko aukera emango digun entzute mota, bizitzen ari duen momentu ebolutiboa kontutan harturik.

Honetarako, haurra dinamika global baten barruan hautematea ezinbestekoa izango da espazio, material zein pertsona ezberdinei eginbeharreko egokitzea bezala.

*“Permanecer en la escucha del niño y la niña implica, según cada situación, recibir al otro, aceptar lo que produce, percibir la emoción como expresión de una experiencia única a partir de la que se desarrolla el itinerario de cada persona”. ( Aucouturier, Darrault y Empinet, 1985)*

- *Egokitze tonikoa*

Egokitze tonikoaren inguruan hitz egiterako orduan gorputz kontaktuari egiten diogu erreferentzia. Tonua, komunikazio eta erlazioa eman ahal izateko ezinbestekoa bilakatuko da.

Tonua, ahots tonua, begirada, jestua, posturak... izan daitezke.

Haur bakoitzaren momentu ebolutiboaren arabera, edota haur bakoitzak duen historia pertsonalaren arabera, haur batzuek beste batzuek baino kontaktu toniko handiagoa eskatuko dute. Beraz, egokitze tonikoaren entzutea entzuteko prest egon beharko du psikomotrizistak.

*“En toda esto relación está presente el concepto de disponibilidad corporal, como actitud de escucha. Es una nueva manera de situarse respecto al niño/a, es tener una actitud de empatía, ser capaz de descentrarse hacia el otro, intentar comprender la historia que nos cuenta la otra persona, sin juzgarla, para desde allí, poder ayudarle a resolver sus dificultades. La disponibilidad corporal supone además un nuevo modo de actuar a través del cuerpo, utilizando como mediadores la mirada, el gesto, el espacio, los objetos... etc. (Boscaini, 1989).*

- **Lege eta segurtasun sinboloak**

Psikomotrizista izanen da lege hau bermatuko duena, baita segurtasuna bermatuko duena ere.

Jolas espontaneo horietan, psikomotrizista izanen da egoera korapilatsuak edota zailtasunez beteriko egoera horiek mantendu eta berriro hartu beharko dituen pertsona, sortu daitezkeen gatazkeetan inor errudun sentiarazi gabe.

Psikomotrizistaren autoritatea argia izan beharko du, aldi berean haur guztien segurtasuna bermatuko duelaren segurtasuna emango duelarik. Segurtasun horrek ere haur guztien eta bakoitzaren adierazpenean eragina izango duela bermatu beharko da, haur guztiek beldurrik gabe adierazi, erakutsi daitezten.

“Egin beharrekoa egiten dakiena” autoritate mota hau haurrei erakustea beharrezkoa izanen da, bai tonuaren bitartez edota psikomotrizistak saioan zehar egingo dituen interbentzio edota esku-hartze txikien bitartez.

Haurrek autoritate hori saioan zehar existituko dela argi eduki behar dute, beti ere autoritate horrek haurrek egingo dituzten jokabideetan eragina ez duten bitartean.

Hau legerik garrantzitsuenean bilakatuko da, haur bat ez baita iñoiz askatasunez mugituko, espazio horretan seguru sentitzen ez bada. Beraz, segurtasun hau ematea psikomotrizistari egokituko zaio.

Hala ere, egitea posible izango diren gauza guztien artean, psikomotrizistak ere hainbat limite finkatu beharko ditu:

- Lagunari ezin zaio kalte egin, hala ere honek ez ditu erlazio erasotzaileak baztertuko.
- Materiala ez suntsitu.
- ...

Debeku hauek errealitate eta jolasaren arteko limiteak markatzen laguntzen dute. Eta aldi berean ere haur bakoitzaren autonomian lagunduko dute.

Debeku hauei esker, haurrak elkarbizitzaz disfrutatu ahal izango dute, nork bere buruarekin ongi sentiaraziz eta frustazioari aurre eginez.

*"Tomar conciencia de la importancia del juego en la construcción y el desarrollo de la personalidad del niño. Observar ese juego y comprender qué es lo que se está jugando (sentido), participar sin ser directivo ni invasor y contenerlo dentro de los límites de lo simbólico. Esto es importante para el niño, pero también para el maestro y sobre todo para su relación. Este juego corporal, este juego psicomotor es una oportunidad para el maestro, de establecer con el niño y con el grupo clase otra relación; una relación de persona a persona que no está mediatizada por el rol pedagógico" (Lapierre, 1990).*

Lapierreren ustetan psikomotrizistak saio hauetan ez du ezer erakusteko izango, soilik euren disponibilitatea azaldu eta erakutsi beharko du, haurrak saioan zehar izaten duen dinamikaren inguruan, bai pentsamendu edota egiten dituen edozein ekintzetan.

Haurra eta psikomotrizistaren inguruan gauzatzen den erlazio honetan formakuntzen bitartez ikasten ez den erronka batean erortzearen arrisku bat egon daiteke. Hain zuzen ere: haur batengan sentitu dezakegun maitasuna edota gorrotoari egiten dio erreferentzia erronka honek. Hau kontrolatu ahal izateko, norbanakoaren profesionaltasuna martxan jartzea beharrezkoa izango da.

Bukatzeko erlazio honetan ere beharrezkoa da psikomotrizistak euren jolasaren plazerraren bila aritzea, erlazio ona izateko plazerra partekatua izatea beharrezkoa baita. Honekin zera esan nahi dut: ez da egiten utzi behar, baizik eta psikomotrizistak egingo dituen esku-hartze edota interbentzioen bitartez, psikomotrizista gai izan behar du, egoera kanalizatu, orientatu eta jolasean eboluzionatzeko gai, hau da, jakin ikasten noiz esan behar den bai eta noiz ez, eta bereziki noiz onarpen, ezezko, probokaziora jolastu behar den.

Psikomotrizistaren eginkizuna, rola, aktiboa izan behar du denbora osoan zehar, haurraren behar eta haur bakoitzaren momentu ebolutiboaren arabera.

Guzti hau bermatzeko psikomotrizistak ispiluarena egitea ezinbestekoa izango da. Hau da, haurrak egiten ari direnaz konstziente eta saioan dauden bitartean onartuak sentitzen direla sentitzeko, psikomotrizistak ispiluarena egin beharko du. Ispiluarena egiterakoan, begirada presente egon beharko du uneoro. Beraz, ezinbestekoa izango da psikomotrizista saio hauetan begirada periferikoa izatea, haur guztiek saioan dauden bitartean babestuak eta onartuak sentitu daitezen. Hau da, begiradaren bitartez psikomotrizistak erakutsi beharko die bertan disponible egongo dela, bai egokitze toniko edota hizkuntza berbal edota ez berbalaren bitartez, onartuak eta ezagutuak sentitu daitezen.

Laburbilduz, hauek dira psikomotrizistak kontutan hartu behar dituen zenbait jarrera, aurreko guztiak borobiltzen dituelarik.

- Haurraren gaitasunak eta interesak errespetatu.

- Beti kontuan eduki haurren ekintzak harrotasuna eragiten duela eta bere erabakiak hartzeko desioa areagotzen duela.
- Ongizate fisiko baten egoera ahalbidetu eta segurtasuna, bai fisikoa eta baita afektiboa ere.
- Begizko komunikazioa, ahozko komunikazioa eta tonudun komunikazioa ezartzeko prest egon.
- Denbora eman.
- Eboluzio prozesuak ezagutu.
- Haurren adierazkortasun psikomotrizia sistematikoki behatu, bere historia kontuan hartuz eta parametro batzuk jarraituz.

Taula honetan psikomotrizistaren funtzio eta jarrerai egingo diet erreferentzia.

**6. Taula.** Psikomotrizistaren funtzioak eta jarrerak

<p><b>Psikomotrizistaren funtzioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Haurrak egiten duenari esanahia eman.</li> <li>▪ Benetazko eta sormenezko munduaren arteko lotura.</li> </ul>
<p><b>Psikomotrizistaren jarrera</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Enpatia</u>: Besteak sentitzen duena ulertzeko gaitasuna, sentitu beharrik gabe.</li> <li>▪ <u>Sinpatia</u>: Besteak sentitzen duena sentitu.</li> <li>▪ <u>Entzutearen gaitasuna</u>: Haurrengandik eratorriak diren ekoizpen guztien onarpena. Baldintzarik gabeko onarpenak hain zuzen ere. Hau da, haurrak esan nahi duena</li> </ul>

	<p>antzematu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Kide sinbolikoa:</u>Haurraren jolasean akonpañatu, lagundu . Haurrari lagundu ahal izateko helburuak argi eta garbi eduki behar ditugu.</li> <li>▪ <u>Lege eta segurtasun sinboloak:</u> Haurraren ekoizpen zein adierazkortasunak eutsi.</li> </ul>
--	--

Azkenik eta aurretik azaldu ditudan psikomotrizistaren jarrera guzti horiek ebaluatu ahal izateko Aucouturierren praktika psikomotorra behatzeko dauden parametroak ere kontutan hartu behar ditugu.

- **Behaketa parametroak**

Behaketa parametro hauek haurra eta munduaren arteko erlazioa nolakoa den adierazten digute. Erlazio honetan bost daude oso garrantzizkoak direnak.

Jarraian horiek laburbiltzen saiatuko naiz.



### 6. Irudia. Behaketa parametroak



**7. Taula.** Behaketa parametroetan kontutan hartu beharreko alderdiak

<b>BEHAKETA PARAMETROAK</b>			
<b>(Haurren adierazkortasuna "irakurtzeko" baliabidea)</b>			
<b>DENBORA</b>	<b>MATERIALA</b>	<b>GAINONTZEEKIKO HARREMANA</b>	<b>NORBERAREKIKO HARREMANA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazioa               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Okupatzen duena</li> <li>- Arbuiatzen duena</li> <li>- Miresten duena (bertan igarotzen duen denborarekin zerikusia)</li> </ul> </li> <li>• Espazio bakoitzean garatzen dituen iharduerak.</li> <li>• Egonaldia, noraezak...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Materialak               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabiltzen dituenak</li> <li>- Erabiltzen ez dituenak</li> <li>- Material abentailatua</li> </ul> </li> <li>• Materialen erabilpena               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Materialak manipulatzeko modua.</li> <li>- Materialak erabiltzeko modu sinbolikoa</li> <li>- Sorkuntza</li> </ul> </li> </ul>	<p>Gainontzeko berdinkide zein psikomotrizistarekin</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erlazioetarako iniziatiba hartzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Interakzioen iniziatiba</li> <li>- Interakzioen norengana</li> <li>- Interakzioen egonaldia</li> <li>- Elkartrukeen erantzuna</li> </ul> </li> <li>• Hizkuntzaren erabilpena               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer esaten du</li> <li>- Nori zuzentzen da</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarrera               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kokagunea</li> <li>- Momentua</li> </ul> </li> <li>• Keinu bidezkoa               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adierazkortasun maila</li> <li>- Erritmoa</li> <li>- Harmonia</li> </ul> </li> <li>• Tonua               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tentsioa</li> <li>- Erlaxazioa</li> <li>- Hiper-hipotonikoa</li> </ul> </li> </ul>

- Erlazio afektiboak
- Inpultsoak
- Proiekzioak
- Urruntzeak (hau maila kognitiboaren gaitasunarekin erlazionatuta dago).
- Nola adierazten du
- Erabiltzen dituen hitz gakoak
- Erlazio mota ezberdinak
- Menderatze
- Mendekotasuna
- Menpekotasuna
- Koorperazioa
- Probokazioa
- Berhezkuntza
- Oldarkortasuna
- Parte ez hartzea

Behaketaren parametroan oso garrantzitsua da:

- Errepikapenak; errepikatzen den guztia antzemateko kapazak izan behar gara.
- Agertu daitezkeen berrikuntzak.

Parametro hauek haurraren ezaugarri eta norbanakoaren momentu ebolutiboari egokitutak daude.

Parametro hauekin, adierazkortasunaren analisia ahalbideratu dezakegu, aldi berean, gure praktika bera behatzeko eta ebaluatzeko ere erabili dezakegun bitartean.

Hau kontutan hartu behar dugun zerbait da, talde batekin lanean ari garenean, gure interakzioa haiekin eta behaketa egitea beharrezkoa delako.

Beraz, behaketa egitea ez nabarmenduarena egiten ikastea da, aldi berean aurrean egonik. Horretarako gure protagonismoa alde batera uztea ezinbestekoa izango da, protagonismo hori aurrean izango ditugun hurrei eman ahal izateko.

Nahiz eta erabilgarritasun handiko baliabidea izan behaketa, psikomotrizistak izugarritzko zailtasunak ditu baliabide honen barneratze prozesuan.

Behaketa ez da soilik aurrean duzun horri begiratzen egotea, baizik eta haratago begiratzea suposatzen du, esate baterako:

- Haurrak inizatiba propioaz aukeratzen duen jolasaren itzarotea izatea suposatzen du.
- Egiten uzten izateko gaitasuna da.
- Modu egoki batez erantzuteko gaitasuna da, jolasean inplikatzeko, errefortzatzeko, proposamenak gauzatzeko, bideratzeko, erlazio ezberdinetan sartu-atera egiteko gaitasuna izaten...

Aucouturierrek dioten bezala: *“para que se produzca la observación es necesario por una parte, pararse en la acción, es necesario hacer pequeños altos en la sala para observar a los niños y niñas, y podernos trazar un proyecto pedagógico en base al momento evolutivo del grupo y de cada niño o niña dentro de este”*.

Behaketaren parametroekin bukatzeko asmoz, bertan psikomotrizitate saio bat behatu ahal izateko erabili ahalko genukeen behaketa orri baten eredua, jarraibidea ipintzea gustatuko litzaidake (ikus XXX anexoa).

### 1.2.8 PSIKOMOTRIZITATE GELAREN ANALISIA

Psikomotrizitate gelari buruz hitz egiten hasi baino lehen, psikomotrizitate gelak osatzen dituen bi faktore aipatu beharra ditugu.

- Osatzen dituzten leku ezberdinak.
- Leku ezberdinen banaketa, distribuzioa. Baita leku bakoitzaren justifikazioa, esanahia ere.


Psikomotrizitate gelaren analisisian kontutan hartuko beharko ditugun espazioak hauek dira: *plazer sensorio-motorraren espazioa, jolas sinbolikoaren espazioa eta azkenik distantziamendu edota urruntzearen espazioa.*

Hiru espazio hauek analizatzen baldin baditugu, haurraren garapen ebolutiboarekin bat datozela ikus dezakegu, Wallon, Freud eta Piageti dagokionez.

Aucouturierrentzat; *“la pedagogía de esta práctica está orientada hacia la manipulación de las producciones del niño/a en los diferentes lugares: manipulaciones estimulantes hacia el desarrollo sensorio-motor, hacia la construcción de espacios simbólicos y hacia la capacidad de representar espacios”.*

Gelaren lekuak eta espazioak deskribatu aurretik, oso garrantzitsua da esatea Aucouturierren praktika psikomotorraren helburua ez dela espazio, denbora... aurre betebeharrak erakustea, hau da, praktika honek, ez du helburu gisa ikaskuntzaren oinarrizko ezagutza batzuk irakastea izango baizik eta praktika honen helburu nagusia haurra egoera emozional baten aurrean pairatzea izango da, egoera horretan espazio, objektu, eta azken finean psikomotrizitate gelaren osatzaile guztiak, haurrari eboluzionatzen uzten diotelarik. Honetarako, haur horren momentu ebolutiboa zein den kontutan hartzea ezinbestekoa izango da.

Beste modu batez esanda, haurra plazer sensorio-motrizetik, jolas sinbolikora pasatuko da, azkenik pentsamendu operatorio eginez. Hauxe da hain zuzen ere egin beharko duen ibilbidea.



**7. Irudia.** Haurra psikomotrizitate gelan jarraitu beharreko ibilbidearen adierazpena

- **Nolako da eta zer gertatzen da psikomotrizitate gelaren barruan?**

Psikomotrizitate gela haurarentzat leku aberats bat izanen da, bertan berarentzat garrantzitsuak diren gauza asko sortu eta gertatuko direlako. Psikomotrizitate gelan, haurrak dituen arazoak konponduko ditu, eta hortaz aparte, den bezalako azalduko da, euren adierazkortasun psikomotrizan arbuaiatua izan gabe. Honek haurren satisfazio pertsonala zein zorientasunean eragina izango du.

Bestalde, psikomotrizistarentzat ere psikomotrizitate gela oso leku garrantzitsu batean bilakatuko da. Espazio honetan psikomotrizista sortzaile sentituko da, haurra eboluzionatzen ikusiko du, eta inguratzen duen orotaz kontziente izaten lagunduko dio.

- ✓ **PLAZER SENSORIO-MOTORRAREN ESPAZIOA**

Hauek izango dira espazio honetan egingo diren jarduera ohikoenak:

- Kulunkatzea, jauziak, biratu, irristatu, jaurti, igo eskailerak, korrika egin, oihu egin, abestu, tamborra zein trompeta jo, kuxiñekin eraikuntzat eraiki, kordekin jolastu, mozorratu, makillatu, besteak erasotu, deskantsatu, behatu, itxaron, desestali, aurkitu...

### ✓ ADIERAZKORTASUN PSIKOMOTRIZAREN LEKUA

Haurra aurrera eramango dituen edozein eginkizunetan onartua dela sentitu behar du, horrela ondokoekin biziko dituen eginkizun edota momentu emozional intentsoak modu batez zein bestez definituko direlarik.

Modu honetaz, psikomotrizistarekin mantenduko duen erlazioaren arabera, euren dimentsio sinbolikoa zein adierazkortasun psikomotorra areagotzea suposatuko du, horrela, haurra beraren bizitza pertsonala, gatatzaketa, sortzailea gehiago ezagutuz.

Hortaz, haurraren gorputzaren mugimenduaren bitartez energia zein tentsioaren deskargatzea gauzatzea garrantzitsua izanen da, horrela deskarga tonikoaren bitartez deskarga emozionala gauzatuko baita.

Haurraren motrizitatea garatzen den heinean, esfortzu maila ere arinduz joanen da eta horrela soberan izango duen atentzio hori beste modu batez fokalizatzen hasiko da hala nola, psikomotrizitate gelan egongo diren beste objektu batzuetan. Momentu honetan haur bakoitzaren bizipenak agerraraziko dira, eta bide hau aprobetxatuz, norbanakoaren espientzia aprobetxatuz, haur bakoitza bere errealitate propioa ulertzen saiatuko da.

Psikomotrizitate gelaren barruan bi jolas adierazgarri gailendu daitezke:

- Jolas motrizak: jauziak, oreka, kulunkatzeak, herrestatzea, erorialdiak...
- Jolas sinbolikoak: ama-aita izatera, medikua izatera, heroeak izateara...

### ✓ KOMUNIKAZIORAKO LEKU BAT

Komunikaziorako leku honetan, hitzezko zein hitz gabeko komunikazioa sartuko da bere baitan. Manifestazio hauen bitartez, haurra ondoan duen pertsonarengandik entzuten dutela sentituko du, modu horretan egiten dituen eginkizun oro onartzen, ulertzen eta erantzuten dituelaren seinale eginik. Horrek guztiak euren eboluzioan lagunduko du.

### ✓ HAURRARENTZAT DESIRA SUPOSATZEN DUEN LEKUA

Psikomotrizitate gelan parte hartzearekin bakarrik haurra pozik jartzeko arrazoi bilakatuko da. Espazio honetan haurra euren irudiak proiektatzeko aukera izango du, ekintzak, sorkuntzak eta garrantzitsuena: alde aurretik bizi gabeko

plazerra sentitzeko” aukera. Honekin haurra guztiz aurreratzea suposatuko du, eta hau oso onuragarria izango da bere eboluziorako.

#### ✓ **AURKIKUNTZARAKO SALBUESPENEZKO LEKUA**

Psikomotrizistak haurraren gaitasun motrizetan, haurraren jokabideetan, eta jolasaren aukera, errepresentazio eta komunikazioan eragina izango du.

#### ✓ **MANIPULAZIORAKO LEKUA**

Aucouturierrek dioten moduan: “la competencia del psicomotricista para hacer evolucionar las producciones del niño/a es hacer evolucionar al niño/a desde su expresividad psicomotriz hacia la expresión simbólica”.

#### ✓ **ERRITUALA SUPOSATZEN DUEN LEKUA**

Erritual hauek haurraren segurtasunerako erreferentziak ematen dituzte. Psikomotrizitate gelaren barruan bi erritual ematen dira: hasierako errituala eta bukaerako errituala.

- Hasierako errituala:

Haurrak behin oinutsik daudela, banku batean esertzen dira, ispilu handi batean aurrean, aretoa eta lekuak ikusten dituztela.

Erritualak zenbait funtzio betetzen ditu:

Saioaren hasierako erritual horrek garrantzi handia du, motrizitatea lantzen den hezkuntzako une aparta hori bereizten baititu eguneko beste une batzuetatik, eta haurrak maila sinbolikoan jarduteko prestatzen ditu:

- Eserita daudelarik, euren jolasen proiektzioak eta bizipenak manifestatu ahal izango dituzte.
- Aretoan ez daudenak aipatzen ditugu, haurren arteko zenbait harreman afektiboren une bateko galeraren garrantzia adierazteko.
- Gogorazten dugu aretoa guk prestatu dugula haurrentzat: haurrak jostatzeko daude hor, eta gu, “bi espazioetako” jolasak errazteko; gu hor egon arren, askatasunez josta daitezke haurrak, baina zenbait baldintza errespetatu behar dituzte.

Hori dela eta zenbait arau finkatu beharko ditugu:

- Lagunei ez diegu min egingo ezta norbere buruari ere ez.
- Ezin dugu materiala puskatu, eta ezin dugu materiala espazio batetik bestera eraman.
- Ezin dira besteon eraikuntzak apurtu.
  - Aurreko saioa (edo saioak) gogoratzen ditugu eta adierazten dugu zer gustatu zitzaigun, haur bakoitzaren eta taldearen gaitasun sinbolikoen eboluzioaren integrazio psikikoaren prozesua, eta orobat, zer ez zitzaigun gustatu eta zer mugatzen duen talde osoaren eboluzioa.

Laburtuta, haurrak saiora sartu baino lehen sobran dituzten jantziak eta oinetakoak eskina batean utzi behar izango dituzte. Ondoren haurrak prestatu beharko ditugu saio honetara sartu aurretik, horrela sartuko diren ingurune horretarako prestatu daitezten.

Behin korroan gaudela, psikomotrizista haurren parte-hartzearekin batera, gela horretan kontutan hartu beharreko arauak birpasatzen dituzte, denok arau horietan partehartzaileak izango direlarik. Hau egin eta gero haurrak, psikomotrizistak prestatutako eraikuntza apurtzeari ekingo diote.

Beraz, sarrera-erritualaren ondoren, hurrek ondo ezagutzen duten seinale batek jostatzeko desioa erreprimitzen jarraitzetik askatzen ditu. Momentu hauek ezinegona handia izan daiteke zenbait haurrengan. Hezitzaileak ezinengon hori erabili behar du, hurrei eutsi egin behar die eta itxarrotearen intentsitatetik une justuan askatu. Hurrek orduan, haientzat eraiki ditugun hormak, piramideak edo gazteluak suntsitzeari ekingo diote, saio-hasierako ezinbesteko une gisa.


- Bukaerako errituala:

Bukaerako erritual honek psikomotrizitate gelari amaiera emango dio, hurrek bizitako bizipenak manifestatzen eta adierazten dituztenean. Behin euren bizipenak eta egindako ekoizpenak adierazi ondoren, denok baita psikomotrizista ere erabilitako materialen biltzea egiten dute.

Bukaerako erritualaren bitartez, haurra bizi dituen bizipenetatik igarotzea bermatuko du, horrela haurra jada bere burua beste espazio batean ikusteko gai izango delarik.

Honetarako, bukaerako errituala abesti baten bitartez gauzatu daiteke.





8. **Irudia.** Psikomotrizitate saio batean jarraitu beharreko metodologiaren egitura

### **SARRERAKO ERRITUALA**

- Denak eseritak egon behar dute.
- Jolastu nahi duten jolasa adierazi beharko dute, baita egin nahi dituzten ekoizpenak ere.
- Aurreko sesioa bergogoratu.
- Psikomotrizistaren legea finkatu.
- Elkarrizketarako momentua da.

### **PLAZER SENSORIO-MOTORRA:**

- Berezko mugikortasuna, experimentazioa eta bakarka zein taldekako jolasek markatzen dutena.
- Haurrei gauza konkretu batzuk egitera ez behartu, desira eta nahien bidezko plazerra bilatzeari bultzatu.
- Ez animatu, ez behartu, horiek behartzearen sinonimoak baitira.
- Egiten edo egiten ez dutenari irribarre egin.

### **JOLAS SINBOLIKO edota AURRE SINBOLIKOA:**

- Jolasteko denbora.
- Bukatu baino bost minutu lehenago haurrei abisatu behar zaie.

**IRUDIKAPENERAKO MOMENTUA:**

- Material ezberdinen erabilpena: konstrukzioak (gelan egongo diren egurreko fixten bitartez), adierazpen plastikoa, adierazpen dramatikoa; ipuinen bitartez, edota buztiña ere.

**BUKAERAKO ERRITUALA:**

- Hitz egiteko momentua bilakatzen da.
- Eguneko konkistengatik zoriontzen ditugu.
- Zerbait adierazteko baduten galdetu.
- Eta saioari amaiera eman; abesti batekin, ...

*Dispositibo espaziala:* Psikomotrizitate saioak ordu, ordu terdiko iraupena izango dute eta astean behin joatearekin nahikoa izango da.

- **Psikomotrizitate saioaren material ezberdinen erabilpenaren garrantzia**

Aucouturierrek dio: *“la sala de practica psicomotriz debería ser una sala específica y reservada para la practica. Una sala en la que los niños puedan evolucionar libremente. La sala a de ser luminosa y con un buen mantenimiento y tanto la sala como el material han de ser atractivos y han de estar limpios. Una sala en la que el psicomotricista se ha de sentir bien y ha de poder vivir junto con los niños y las niñas el placer de ser y existir”.*

Psikomotrizitate gelaren barruan aurkituko dugun materiala behar bezala ordenaturik egon beharko du, orden horrek eragina izango baitu haurrek egingo dituzten ekoizpenetan. Bestalde ere ugaria izan beharko du, aldi berean haurrentzako egokituta egongo delarik, bai haurren beharretara baita saioaren garapenera ere.

Beraz materiala horrelakoa izan daiteke:

- Material finkoa: espaldera, arbelak, ispiluak...
- Material ez finkoa: uztailak, sokak...

Sailkatze honetaz aparte, materialak ere euren osaketarengatik edota adierazten edota errepresentatzen dutenagatik bereiz ditzazkegu:

- Material biguinak: pilotak, kuxinak, telak... Hauek haurrari estaltzeko, plazerra emateko eta segurtasuna emateko balio dute.
- Material gogorak: espalderak, egurrezko konstrukzioak, aulkitxoak, plastikozko kuboak... Material hauek haurra erronkaren gainean jartzea lortzen dute, errealitatearen hasieran hain zuzen ere eta horrek, haurraren gainditze fisikoa suposatuko du, baliagarria eta onuragarria izango dena haurraren garapen sensoriomotorrerako.

Materialaren helburua beraz haurra garapen sensoriomotorreruntz bidaltzea izanen da, baita jolas sinbolikotik zein deszentrazio gaitasunetik igarotzen delarik.

- **Psikomotrizitate saioaren dispositibo espaziala**

Ibilbide guzti hau konstrukzioen bidezko jolasen bitartez lortuko du eta horretarako ezinbestekoa izango da *psikomotrizitate saioa espazio ezberdin batzuetan banatuta egotea*.

Beraz, horretarako jolasa hiru alderdi hauetan banatu beharko da. Alde batetik jolas sensoriomotrizia (edo ekintzakoa). Jolas mota hau agertzen lehenengoa da (0-2 urte bitarte) eta ezaugarritzen duena aurrehitzekoaren garapena da.

Jolas mota honek asimilatze funtzionalera eramaten du haurra. Eta bertan jolas sinbolikoaren garrantzia azalartzen da, ( 2-7 urte bitarte emango dena).

Jolas sinbolikoa hizkuntzarekin batera agertuko da eta jolas honekin, ez dauden egitura zein formak errepresentatzeko balioko du, errealitatearen transformazio zein objektuei bizia emanez.

Jolas kognitiboa azkenik (7-12 urte bitartean gauzatuko da), eta bertan harreman sozialak zein banakakoak gauzatuko dira.

1. Plazer sensorio-motorraren espazioa
2. Jolas sinbolikoaren lekua
3. Distantziamenduaren edota urruntzearen lekua

1. **Plazer sensorio-motorraren espazioa**

Ezpazio hau haurraren garapenean eragin handiena duen espazioa da. Beraz, espazio honen helburuak zeintzuk diren ezagutzea ezinbestekoa izanen da.

- Bizipenaraztea

Berezko jarduera motrizen bitartez, haurra mugimenduaren plazerra bizitzea suposatuko du.

Espazio honetan beharrezkoa izanen da haurrari espazio bat eskaintzea zeinetan mugimenduaren plazerra bizi ahal izango duen, hau da plazerraren bidezko plazerra bizitzera ahalbideratuko dion espazioa eskaintzea.

- Norbanakoaren gorputz eta identitate irudiaren formakuntza

Espazio hau haurraren garapenean zein munduarekin izango duen erlazioan eragin handia izango du.

Honetarako gorputzaren koordinazio globala beharrezkoa izango da.

Aucouturierrentzat: “El placer sensorio-motor es la expresión evidente, de la unidad de la personalidad del niño/a, porque crea la unión entre las sensaciones corporales y los estados tónico-emocionales. Permite la puesta en juego de la globalidad”.

## **2. Jolas sinbolikoaren espazioa (espazio afektiboa)**

Espazio honen helburua haurrak pentsamenduan duen hori imitatu, simulatu, eta irudikatzean datza, materialak inbestitzen dituen bitartean.

## **3. Distantziamenduaren edota urruntzearen espazioa (eraikitze jolasa)**

Espazio honen helburua haurraren adierazpen alderdia erreforzatzea izanen da marrazki edota beste bide batzuen bitartez orain arte bizitakoa errepresentatuz.

Adierazpen hauek motrizitate finarekin izan behar dute zerikusia, adierazkotasunarekin batera, beste mugimendu zehatz batzuk ikasteko aukera izango baitute.

Adierazpen grafiko eta plastikoaren aldia: gorputzaren gelditasuna izanen da fase honen adierazle nagusia, hau da, haurraren emozioak geldiaraziko dira eta horrek haurra sinbolizazioruntz jotzea eragingo du.

Horretarako haurra zenbait materialen erabilpenari ekingo dio, material hauek jarduera motorren bitartez egindako buruko irudiak berrartzea suposatuz.

Jarduera motor hauek marrazki edota konstrukzioen bitartez adierazi ahal izango dituzte haurrek.

Aldi honetan beraz, haurra egiten duen ekintza ororen protagonista izateari utziko dio, ekintza horien ikusle izatera pasaz. Aldi honek haurraren sormena areagotzea baldintzatuko du, haurra aldi honetan guztiz murgilduta egongo baita egingo dituen edozein ekoizpenen eraikuntzetan. Beraz, marrazki edota konstrukzioen bitartez egingo dituen adierazpen hauetan gorputza ez du ezertarako balio izango.

Hauek dira espazio ezberdin horietan eskuragarri izango genukeen material aproposena.

#### 8. Taula. Espazioen antolaketa eta materiala

ESPAZIOA	MATERIALA
<b>Plazer senso-motorraren espazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ispilua</li> <li>- Koltxonetak</li> <li>- Espalderak</li> <li>- Eskailerak</li> <li>- Bankuak, ranplak,</li> <li>- Saltatzeko lekuak</li> <li>- Sokak</li> <li>- Tanboreak, instrumentuak</li> <li>- Baloiak baina txikiak</li> <li>- Gomazko, espumazko blokeak</li> </ul>
<b>Jolas sinbolikoaren espazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gomazko, espumazko blokeak.</li> <li>- Oihalak, jantziak</li> <li>- Sokak</li> <li>- Pelutxeak, panpinak</li> <li>- Kutxa txikiak</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Biberoiak</li> <li>- Instrumentuak, danborrak...</li> </ul>
<p><b>Distantziamenduaren edota urruntzearen espazioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arkatzak, margoak</li> <li>- Folioak</li> <li>- Guraizak</li> <li>- Plastilina (marroi koloretakoa soilik)</li> <li>- Konstrukziorako egurrezko fitxak (kolore gabekoak, proportzionalak...)</li> </ul>

Espazio hauen sorkuntza haurren izate globalak mugatuko du, eta honi erantzuna emateko Aucouturierrek psikomotrizitate saioan espazio hauek sortu beharko ditu, haurra globaltasunez garatu dadin.

Zentzu honetan, psikomotrizistaren esku-hartzea psikomotrizitate saioaren espazioak egituratzea izanen da, hain zuzen ere, aurrean aipatu egin ditugun hiru espazioen egituratzea. Espazio sensoriomotorra- jolas sinbolikoaren espazioa edota espazio afektiboa eta azkenik urruntzearen espazioa.

Espazio bakoitza espezifikotasunez kontuan hartzen badugu ere, psikomotrizitate gelan, hiru espazioen proiektzioa emango da, haurra izaki global bat bezala ikusiko baitugu. Hori dela eta, psikomotrizista hiru espazio horiek behar bezala egokitzearen ardura artu beharko du, haurrarentzat zailtasunak izan daitezkeenak ekidituz. Hau lortu ahal izateko beharrezkoak izango diren bi gauza aipatzea ezinbestekoa da.

- *Materialen banaketa:* Haurrari adierazkortasun psikomotrizita jartzeko ezinbestekoa izango da. Bertan materiala zein gelaren aldaerak, aukera anitzak, psikomotrizistaren esku-hartzea zailduko dute. Haur bakoitza bere izaera propioa izango du hori dela eta psikomotrizistak eman beharreko erantzunak ere dibertsifikatu, askotarikotu beharko ditu.


- *Espazio zehatzak*, espezifikoak: Haurraren garapena posible egingo dute.

Zoragarriena haurra hiru espazio hauetatik pasatzea izanen litzeke, modu horretaz haurraren eboluzioa eta bere garapena izaki global bat bezala bermatuko genuelako.

Psikomotrizitate gelaren barruan espazio hauen banaketaren HELBURUA eta azken finean praktika psikomotorraren helburua: haurra bilaketa, sorkuntza egoera batean jartzea izanen da, haurra modu honetan emozionalki heldutu eta eragite logikoetara irits dadin.


Alderdi edota marko teorikoarekin bukatzeko azkeneko laburpen grafiko bati esker, Bernard Aucouturierren praktika psikomotor osoa ulertzeko gai izango gara.

## BERNARD AUCOUTURIERREN HEZKUNTZA PRAKTIKA PSIKOMOTORRA



9. Irudia. Bernard Aucouturierren metodoaren kontzeptu mapa





10. Irudia. Bernard Aucouturierren metodoaren kontzeptu mapa

## **2. ALDERDI PRAKTIKOA**

### **2.1 BERNARD AUCOUTURIERREN PRAKTIKA PSIKOMOTORRAREN METODOAREN HAUSNARKETA KRITIKOA**

Atal honetan, alderdi praktikoari dagokion atal honetan, Bernard Aucouturierren praktika psikomotorraren marko teorikoa edota oinarria zertan datza ez dut errepikatuko. Teorian landutako zenbait alderdiei egingo diet erreferentzia, alderdi teoriko horrek praktikan duen garrantzia nabarmenduz. Hala ere, hau egin ahal izateko marko teoriokoan azaldutako zenbait gauzei egin beharko diet erreferentzia, horiei buruz hitz egin eta hausnartu ahal izateko. Modu honetaz, eta honen bitartez, praktika psikomotorrak haurraren garapenean duen garrantziaz hitz egin ahal izango dut.

Bernard Aucouturierren praktika psikomotorra haurraren adierazkortasun psikomotrizia aberastea du helburu, haurra komunikazioruntz, sorkuntzaruntz eta pentsamendu operatorioruntz eramaten duelarik. Prozesu guzti honetan haurraren garapen motrizak, adierazkortasuna, eta sormenezko gaitasunak garatzea izanen du helburu, hauek guztiak gorputzaren bitartez lortuko dituelarik. Hori dela eta, Bernard Aucouturierren begirada, haurraren mugimendu zein haurrek egiten dituzten ekintza orotan nagusituko da, praktika psikomotorra behar bezala eraman ahal izateko.

Praktika psikomotorrak beraz, honako garrantzia du haurraren garapenean:

Praktika psikomotorraren bitartez haurra den bezala izaten lortuko du, sentitzen duen guztia sortzeko, manifestatzeko, adierazteko aukera eskainiz. Haurra modu honetaz sentitu dadin, eta askatasunez jokatzeko aukera duela sentitzeko, psikomotrizistaren jarrera bertan ezinbestekoa izango da. Haurra euren sentimenduak, desirak, plazerrak, frustazioak adierazten dituen bitartean entzuna, onartua, lagundua, bortxatu gabea, sentitu behar delako helduaren presentziaren aurrean. Modu honetaz haurra euren desirak, plazerrak, nahiak modu zuzen eta natural batean adierazi eta errepresentatu ahal izango ditu.

Praktika psikomotorraren bitartez, haurraren harremanak sustatzea posible egingo da. Eure errepresentazioak adierazi ahal izateko bestean presentzia,

besteon izaera beharrezkoak izango baititu. Hori dela eta, eta errepresentatu nahi duenari esanahi bat eman ahal izateko, edota sentitzen duena adierazten lagundu ahal izateko, komunikazioa ezinbestekoa bilakatuko da. Komunikazioaren bitartez haurra sentitzen duen oro adierazi ahal izango duelako. Komunikazioaz hitz egiten dudanean, hitzezko zein gorputz komunikazioaz arituko naiz, gorputzaren bitartez edota gorputza bide gisa erabiliz, adieraz dezakeen edozein komunikazio motaz hain zuzen ere.

Komunikazioaren bitartez beraz, haurra talde baten barne integratua dela edota dagoela sentituko du eta horrek gainontzeko gaitasunen garapenean lagunduko dio. Bertan gizakia gizartekoiak garelaren eta izateko beharra dugula ahaztu behar ez dugulako.

Komunikazioaren bitartez haurrak sentitzen duena modu batez zein bestez transformatu eta adierazi ahal izango du, sentitutakoari esanahi bat eman ahal izateko. Horretarako, psikomotrizitatearen zenbait baliabideen garrantziaz jabetu beharko gara profesionalek. Kasu honetan material, zein espazioei eman beharreko garrantzia eman beharko diegu, baita psikomotrizitate saio guztietan zehar psikomotrizistak izan eta mantendu beharko duen jarrera zein begirada ere.

Sentimendu, nahi, plazer hauen guztien adierazkortasunean ari denean haurra, haurraren garapen globala eta harmonikoa gauzatzen ari dela esan dezakegu.

Momentu honetan, haurraren adierazkortasun eta komunikazioan laguntzea edota akonpañatzea izanen da gure helburu nagusietariko bat.

Bestalde, pentsamendu magikoaren irteera erraztea izango da gure lana, pentsamendu adierazgarri eta operatioruntz zuzenduz. Hau da, haurrari psikomotrizitate saioan bizitako guztia bertan utzi eta hortaz ikaskuntza esanguratsu bat lortzera laguntzea, edota sustatzea izango da gure helburua, hurrek egin duten edozein ekintzei esanahi bat eraikitzen lagunduz.

Guzti honekin haurra zenbait eduki kontzeptual barneratzea lortuko dugu, eure, norbanakoaren ikaskuntza esanguratsua bermatuz. Ikaskuntza esanguratsu hauek, urte osoan lortu beharreko ikaskuntza eskolarrekin bat egin beharko du, psikomotrizitate saioan zehar ikasitako guztia jarraipen eta onura batzuk izan dezaten.

Beraz, Aucouturierren helburuak hauek izango litzateke:

- *Haurra ikasteko egoeran jartzea*. Horretarako praktika psikomotorrean garatutako oinarrietan zein alderdi metodologikoetan garrantzia ipini.
- *Haurra bilaketa eta sorkuntza egoeretan jartzea*, emozionalki heltzeko eta indukzio logikoetara iristeko aukera eskainiz, horrela ikaskuntza esanguratsuak lortuko dituela bermatu ahal izateko.

Hau da, adierazkortasun motrizaren bitartez haurraren heltze psikologikora iristea du helburu nagusi praktika psikomotorrak.

## **2.2 BIDEO GRABAKETAN OINARRITUTAKO ANALISI KRITIKOA**

Bigarren puntu honi hasiera eman ahal izateko, Aucouturier metodoaren inguruan proposamen bat egitearen ideia bururatu zitzaidan. Proposamen horrek bideo grabaketa batekin zerikusia du, hain zuzen ere, psikomotrizitate saio baten grabaketa aurrera eramango dudalarik.

Bideo grabaketa honen *helburua* psikomotrizitate saio baten egitura nolakoa izan behar duen, eta psikomotrizistaren jarrera bertan ze nolako garrantzia duen analizatzea izango da. Beti ere kontutan harturik, jarrera hauek aurrera eramango dituzten profesionalek, nire praktikuma aurrera eramanez eskolako irakasleak izango direla. Hau da, psikomotrizistaren papera aurrera eramango duen pertsona irakaslea izango da, talde bakoitzaren erreferente nagusia.

Irakasle honek, Aucouturier metodoaren egitura jarraitu beharko du hau da, irakaslearen esku-hartzea, jarrera eta saioan zehar eramanez beharrek metodoak Aucouturier metodoarekin bat egin beharko du, hau izan baita nire lanketaren helburuetariko bat. Hala nola, psikomotrizitate gelan aritzeko metodo berri baten ezagutza, ezagupena isladatzea.

Beraz, grabaketa honen bitartez psikomotrizitate gela baten barne gertatzen den guztia analizatu eta horren inguruan hausnartu ahal izango dugu. Psikomotrizitate saioak, ordu terdiko iraupena dutenez, eta bertan gertaturiko guztia analizatzeko denborarik izango ez dudanez, nik soilik Bernard Aucouturierrek proposatutako metodologiari zein psikomotrizistak izan

beharreko jarrerari erreparatuko diot. Guzti honetan, gelaren antolaketak zein materialak izango duten garrantzia goraiatuz.

Hau guztia esan eta gero, nire bideo grabaketarekin hasteko egin beharreko *ibilbideak* nolakoak izan diren azaltzea gustatuko litzaidake.

Bideo grabaketa bat egingo nuela erabaki nuenean, nik psikomotrizista gisa jarduntzea, jokatzeko pentsatu nuen. Nire interbentzioa psikomotrizitate gela baten barne analizatzea interesgarria izango zelako. Bertan ezin baitugu ahaztu, lanketa hau aurrera eramateko murgiltzen ninduten grin pertsonalak.

Hala ere, denbora luzez pentsatzen egon eta gero, nire esku-hartzea analizatzea baliozkoa izango ez zela pentsatu nuen, azken finean, profesional gisa eraikitzen ari bainaiz oraindik. Beraz, irakaslearen jarrera behatzea interesgarriagoa bilakatuko zela pentsatu nuen, hori dela eta, praktikumean tutore gisa nuen irakasleari nire proposamena aurkeztu eta nirekin partehartzea interesgarria izanen zela iruditu zitzaion.

Beraz, lanari ekin genion. Hala ere, kontutan izan behar dugu, eskola honek urte guztia psikomotrizitateari buruzko proiektu batekin lanean ari direla, beraz, proiektu honi eutsiz, nire proposamena aurrera eramatea errazagoa izanen zela pentsatu nuen.

Beraz, grabaketa nork burutu behar zuen erabaki eta gero bideo grabaketa egiteari ekin genion.

Horretarako, psikomotrizitate gela Aucouturier metodoari jarraituz prestatzeko ekin nion. Gela prestatu ahal izateko espazioen antolaketan zein materialen sailkatzean jarri nuen arreta gehiena, Aucouturier metodoan guzti honek izugarritzko garrantzia baitu.

Beraz, psikomotrizitate gelan hiru espazio ezberdin banatu nituen: espazio sensoriomotorra, espazio sinbolikoa eta azkenik errepresentaziorako espazioa. Hau egin eta gero, espazio bakoitzean, egon beharreko materiala sailkatzen hasi nintzen, material horrek psikomotrizitate saioan zehar izan beharreko garrantziari erreparatuz.

Grabaketa honen *helburua* Aucouturier metodoari erreparatuz, psikomotrizitate saio baten egitura nolakoa den erakustea izango da. Metodo honi jarraituz,

saioa hasi aurretik egin beharreko prestakuntzak, prikomotrizistaren jarrerak, esku-hartzea nolakoak izan behar diren kontutan hartuz. Hau da, grabaketa honetan ez ditugu haurren bizipen zein egoera ezberdinak analizatuko, horretarako denbora zein haurrak sakonki ezagutu beharko genituelako.

### 2.2.1 ACOUTURIER METODOAN OINARRITUTAKO METODOLOGIAREN EGITURA

Ondorioz, bideo grabaketa honen bitartez, Aucouturierren metodoaren egitura, haurrengan duen eragin mota analizatzea izanen da nire helburua, metodologia honek haurrengan izan dezakeen garrantziaz jabetu ahal izateko.

Egingo dugun analisi honen bitartez, irakasleak egin ahal dituen akats guztien aurrean proposamen berriak aurkeztuko ditut, beti ere Aucouturier metodoak esaten duen bezala eginik. Irakaslea argi eta garbi dago gaizki egingo ez duela, baina beti zuzentzeko zerbait dagoela esan beharra dago. Beraz, analisi honi esker, zuzenketak eta proposamen berriak argitara utzi ahal izango ditut, etorkizunean baliagarriak izan daitezen nire eta beste profesionalentzako.

Hau guztia esan eta gero, *bideo grabaketaren analisi kritikoa* honakoa izango litzateke.

Esan bezala, hiru espazio ezberdinak banatu egin nituen, baita errepresentaziorako espazioa ere. Errepresentazio espazioan bi txoko ezberdin bereiztu nituen, alde batetik korro espazioa eta bestetik adierazpen plastiko zein konstrukzio adierazpenerako espazioak.

Honekin batera, haurrek bota beharreko paretak ere prestatu nuen, paretak sarrerako erritualan izugarritzko garrantzia baitu. Hau bideo grabaketetan ikusi ahal izango dugu.



11. Irudia. Harresi mota baten adibidea

Beraz, haurrak gelan sartu aurretik dena prest egon behar du. Honela, saio guztietan eremu eta material berdinak topatuko

dituztelaren bermakuntza eskaniz. Honek haurrari segurtasuna izaten lagunduko dio eta aurre irudikatze prozesuan, zein plazerra edota gozamenean izugarrizko eragina izango du.

Behin hau guztia egin eta gero irakaslea baita haurrak ere psikomotrizitate gelan sartzeko aukera izan zuten.

Sartu bezain laister asanblada txokoan eseri eta harrerarekin hasi ziren bai irakasle zein haurrak ere.

Atal praktikoa hau, etorkizunerako aberasgarria izan dadin, taula bat egitea bururatu zait. Tabla horretan, Aucouturier metodoari jarriki egin beharreko edukiak eta esku-hartzeak ipiniko ditut taularen beste aldean, ordea, irakasleak psikomotrizitate saio horretan izandako esku-hartzea idazteko aukera izango dudalarik.

Taula honen bitartez bi profesional ezberdinen esku-hartzeak idazteko aukera izango dut, baita nire kabuz bururatutako zenbait proposamen ere. Beti ere kontutan harturik metodo honen sortzaile eta jakitun nagusia Bernard Aucouturier dugula. Beraz, taula honen bitartez Aucouturier metodoari jarriki edota eskola bateko irakasle bati jarraiki egon daitezkeen esku-hartze ezberdinak analizatu ahalko ditut, bien arteko alderaketa zein hausnarketak eginez.

- **Harrera**

Grabaketaren lehenengo zatia harrerakin hasiko da. Harrera Bernard Aucouturierren atal garrantzitsueneratiko bat izango da, beraz taularen bitartez bai bideoan zein marko teorikoan ikusitakoa adierazten saiatuko naiz.

**9. Taula.** Harreraren alderaketa Aucouturier eta bideo grabaketari dagokionez

<b>AUCOUTURIER METODOARI ERREFERENTZIA EGINEZ AURRERA ERAMAN BEHARREKO IRIZPIDEAK</b>	<b>ESKOLAKO IRAKASLEA AURRERA ERAMANDAKO ESKU-HARTZEA (Bideo grabaketetan ikusi ahal izango dena)</b>
- Harrera momentua prestaketekin hasteko momentua bezala ikusiko da.	- Haurrak korroan eseri eta irakasleak bilatzen saiatu den lehendabizko gauza ixiltasuna

<p>- Hurrek bertan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinetakoak kendu</li> <li>• Haurrak agurtu</li> <li>• Haurren aurkezpena egin, saioan nortzuk eta nortzuk ez dauden identifikatu ahal izateko.</li> <li>• Arauak gogora ekarri</li> <li>• Segurtasun neurriak adierazi</li> <li>• Besteenganako errespetua izatearen garrantzia azpimarratu.</li> <li>• Egun horretako prestatu ditugun txokoen azalpena egin.</li> <li>• Topo egingo duten materialen aurkezpena egin.</li> <li>• Egin ahalko dituzteen jardueri buruzko iradokizunak egiteko momentua eskaini.</li> <li>• Haurren iritzi eta galderei lekua utzi, hau da, haurra askatasunez adierazteko aukera eman.</li> </ul>	<p>izan da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ixilik daudela, gelakidei agurra egin eta espazioaren bergogorapenarekin jarraitu du. Hau da, agurra egin eta ze gelatan dauden birpasatuko dute, haiek gela horren barne bere burua ikus dezaten.</li> <li>- Jolasak momentu horretan duen garrantziaz eta ongi pasatzearen garrantzia, disfrute zein plazerraren garrantzia behin eta berriz errepikatuko du irakasleak.</li> <li>- Ondoren irakaslea eginbeharrekoak egin dituzten ala ez konprobatuko du. Hau da, oinetakoak kendu dituzten, oinetakoak bere lekuan utzi dituzten ala ez birpasatuz.</li> <li>- Arauen garrantzia azpimarratuko du egin beharrekoa eta ez egin beharrekoa argi eduki dezaten hurrek.</li> <li>- Guztion artean arauan zeintzuk izango diren finkatuko dituzte eta horien artean besteari min ez egitea hartuko du garrantzi gehiena.</li> <li>- Bukatzeko, egin ahalko</li> </ul>
---	--



	<p>dituzteen jardueri buruzko iradokizunak entzuteko momentua eskaini, haurren barne desira, beharrei askatasunez askatzen utziz. Hau da sormenerako atea ireki.</p>
--	--

Nire grabaketari erreferentzia eginez, irakaslearen esku-hartzea bestelakoa izan dela argi eta garbi dago, Aucouturier metodoarekin alderaketa egiten baldin badugu. Hala ere, Aucouturrierrengandik gauza asko jasotzen dituela esan beharra daukat, horietariko batzuk, oso garrantzitsuak ere ahaztu egin dituela azpimarratuz.

Saiora sartu bezain laister haurrek euren oinetakoak kendu eta bankutxoaren gainean eseri dira. Hau oso ongi egin dute, jada kurtso bukaeran gaudenez, psikogelan egon ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak jada ikasi eta barneratu dituztelako.

Bestalde, korroan eseri diren bezain laister irakasleak bere protagonismoa ere bilatzen saiatu da, saioari hasiera eman ahal izateko beharrezkoak diren zenbait gauzei buruz aritu ahal izateko. Nik momentu horretan agurra egitearekin batera, haurren izenak ere izendatuko nituzke.

Proposamen honen zergaitia honakoa da: haurren izenak izendatzearekin batera, haurrek euren jolaserako beharrezkoak izango dituzten lagunak nortzuk izango diren pentsatu ahal izango dute. Hau da, barne pentsamenduak egitera bideratzen lagunduko diegu, aurrera eramango dituzten jolasetan pentsatzen ari diren bitartean.

Bestalde, espazio konkretu baten barne daudela identifikatzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Haurrek momentu horretan euren buruak gelaren barne kokatzeko aukera izango baitute. Hau da, gela horren barne zer egin eta zer egin ez daiteke jakin ahal izango dute, espazio horren barne sentitzen diren momentutik. Gainera psikomotrizitate gelaren barne egotearen plazerraz disfrutatzeke aukera ere eskaintzen die irakasleak, eta hori oso garrantzitsua

da, hurrek psikogela oso gustoko baitute. Momentu hau nire aburuz, norbanakoaren adierazpen gisa kontsideratu daiteke.

Hurrek euren kabuz egindako gauzen inguruan errefortzuak faltan bota ditut. Zein ongi kendu dituzuen oinetakoak, zeinen ongi kontrolatzen duzuen psikogelan egin beharrekoak eta mota honetako esapideen bitartez.

Bestalde eta harrera momentuarekin bukatzeko, saioaren antolaketari buruz zeozer esan beharko genukeela uste dut. Hau da, zein nolako espazioak antolatu ditugun, prestatuak harresia gustoko duten ala ez, zein material erabiliko dituzten,... Horiek guztiak hurraren prozesuan izugarri lagunduko baitute eta gainera sortuko dituzten jolasen eraikuntzan lagungarriak izango dira.

Harrerarekin bukatzeko irakaslea arauen inguruan nola aritu den izugarri guztatu zait. Arauei bere garrantzia eta guztion artean, kooperazioan egin baitituzte. Momentu horretan enpatiari lekutxo bat ematen zaiola uste dut, hurrek gustoko ez dituzten gauzak plazaratu ahal izango dituztelako. Beraz, gustokoak ez dituzten gauzak plazaratzearekin batera besteei egitea gustatzen ez zaiena adierazteko momentu aproposa bilakatu daitekeela uste dut. Bestalde, arauarekin batera ere, egin ahalko dituzten gauzak ere gorai patzen ditu irakasleak, psikomotrizitate gela plazerraz disfrutatzeko momentua dela azpimarratuz.

Eta azkenik, hurrek egin beharreko jolasetaz aritzeko aukera izan dutela uste dut. Hau ezinbestekoa izango da, sormenarekin bat egitea oso garrantzitsua izango delako.

- **Harresia**

Irakasleak harresi bat eraikitzen du gomaespumako blokeekin. Adostutako seinalea entzutean eraisteko garaia iritsiko dela gogoraziz. (“derribo” izenaz bezala ere ezagutua da).

Momentu horretan esponjen dorrea behera bota, beren burua bota (hori guztia algara eta garrasi artean) egiteko aukera izango dute.

Pertsona helduek ezarritako antolaketa apurtzeko aukera izango dute hurrek harresiaren bitartez, tentsio emozionalak askatzen dituzten eta gorputzeko giharren blokeoa gainditzen duten bitartean.

Harresiaren momentua bideoan, izugarritzko nahia eta plazerrarekin bizitzen den momentua dela esan beharra daukat. Ezinezkoa egiten zaie geldirik egotea, urduri eta irrikitan daude harresia botatzeko, horri psikomotrizitate saioari hasiera emateko nahiak gehitzen direlarik. Hala ere, irakaslea bere presentziaren bitartez euren nahiak kontrolatzen lortzea lortzen duela uste dut.

Momentu horretan irakasleak erabiliko dituen zenbait estrategien bitartez, haurrak seinalea entzun arte geldirik egotea lortuko du. Eta horrek izugarritzko algarak, urduritasunak suposatuko ditu hurrengan.

Harresia botatzearekin batera berezko jarduera motriza garatzeko momentuari ekingo diote hurrek.

- **Berezko jarduera motriza**

Hasieran, haurrak etengabe aritzen dira beren kabuz txoko batetik bestera dena eramaten. Noraezean inongo helburu konkreturik gabe.

Aniztasun ezberdin horiei esker, era guztietako gaitasun eta mugitzeko beharrak asetzen dituzte. Gune horiei esker, mugimendua bizi dezakete, esperimentatu, gauzatu, erabakiak hartu, arazoak ebatzi, sortu, komunikatu egiten baitute.

Momentu honetan zailtasun maila guztietako eredu psikomotrizak lantzen ari dira.

Irakaslearen eginkizunak jarduera hori aberastea izango du helburu. Horretarako txokoak behin eta berriro antolatu beharko ditu, materiala gehituz, egokituz, kenduz, lekuz eta egoeraz aldatuz...Hau irakaslearen eginkizun bat izango da.

Hurrek egoera horiei esker zenbait egoera gaindituko dituzte eta beraz zailtasun maila handiagoko arazoei aurre egiten hasiko dira. Atal hori luzeena izango da (25-30) minutu iraun dezake eta bertan askotako jarduera ezberdinak egin ahalko dituzte: kulunkak, presioak, jauziak, garraioak, birak, trepak (igoerak), orekak, hustuketak, lekualdatzeak, esekitzeak, erorketak...

Horretarako beharrezkoa izango da era askotako materialak konbinatzea. Hala nola gogorra eta biguinak, tinkoak eta mugikorak, ...

Nire grabaketari erreferentzia eginez, irakasleak bertan ez ditu txokoak zein materialak behin eta berriz antolatuko. Hurrei euren beharren arabera mugitzen utziko die, beti ere bere presentzia bertan dagoela nabarmenduz.

Bestalde, harresia botatzearekin batera, eta berezko jarduera motrizari hasiera ematearekin batera, euren arteko liskarrak areagotzen hasiko dira. Hau da, berdinkideen arteko liskarrak areagotuko dira eta bertan psikomotrizistaren jarrera ezinbestekoa izango da.

Zenbait bideoetan ikusi ahal izango dugun bezala, irakaslea liskar bat dagoela ikusi bezain laister, haiengana hurbildu eta beraiekin hitz egiten hasiko da. Hori besteen jolasa apurtu gabe egin beharko du. Hau da, ez du oihukatzea balio izango, zuzenean arazoa duten pertsonengana hurbildu eta beraiekin lasaitasunez hitz egiten saiatuko da.

Gertatutakoaren berri jasotzeko helburuarekin hurbiltzen da irakaslea eta haurrak askatasunez adierazi daitezten denbora eskainiko die. Gertutasun honekin batera entzutea egongo dela bermatzen saiatuko da irakaslea, entzutearekin batera arauak bergogoratu.

Bideo grabaketetan, ordea, ez dago horrelakorik ikusteko aukerarik. Entzutearen alde egiten du irakaslea, baina arauak bergogoratu beharrean, soluzio edota konponbide baten bila murgiltzen da berehala. Eta honek gatazken aurrean balioa galtzen duela usted ut.

Momentu horietan mota askotako jolasak sortzen ari direla esan beharra daukat, norbanakoaren behar eta momentu ebolutiboaren arabera.

- **Jolas sinbolikoa eta eraikitzea**

Irudikatzeko jolasean, bizitza errealeko objektu, jarduera edo une bat irudikatzen du haurrak, fantasia eta errealitatea elkartuz. Horretarako irakasleak hainbat baliabide utziko die eskuragarri hala nola: zapiak, soka, uztaia, kuxinak...

Tresna neutro horiei bere sinbologia propioa eransten die haurrak.

Jolas horiei esker barruan gordetako barne-gatazkak kanpora askatu ditzazkete. Beraz jarduera horrek duen helburutariko batzuk hauek izan daitezke: erruduntasun-sentimendua gutxitu, errealitatea onartu, benetako egoeretara egokitu, egoera deserosoak onartu, debekatutako jarduerak antzeztu...betiere norberaren onarpena sendotuz.

Bizipen ezberdin guzti hauek ahoz adieraztera bultzatu behar ditugu, komunikazioa bertan izugarrizko garrantzia hartuko duelarik. Atal honek 15-10 minutuko iraupena izango du.

Nik, nire grabaketeei erreferentzia eginez, atal ezberdin hauek guztiz ezberdintzen edota banatzen ez direla esan beharra daukat. Berezko jarduera motrizeko jolasak zein jolas sinbolikoko eta eraikitze jolasak espazio guztietan zehar nahasten direla pentsatzen baitut. Beraz nahasmendu honek irakaslearen esku-hartzea zailtzea suposa dezake.

Nire ikuspegiaren arabera, kontutan hartu beharreko irizpide bat dela uste dut..

- **Irudikatze eta mintzatze espazioa**

Atal honetan ahoz, marraztuz, plastilinaz, antzeztuz...saioan bizi izandakoa adierazten saiatu behar dira. Bizi izandako kontzeptuak barneratzeko, oroimena lantzeko, ordezkapena eta kontzeptualizazioa jorrazteko guztiz baliagarria izaten da azkeneko espazio hau.

Nire grabaketari dagokionez, azkeneko espazioa hau, adierazpen plastiko izenarekin ezagutua dena, plastikaren bitartez gauzatu dute.

Hau da, gela antolatzen ari nintzenean, espazio bat adierazpen plastikorako prestatu nuen, bertan folioak eta margoak eskuragarri utzi nizkiela.

Beraz, behin irakaslea saioarekin bukatzeko ordua zela esatean, haurrak gauzak bildu gabe adierazpen plastikorako prestatu nuen txokoan eseri ziren, euren lanak aurrera eramateko asmoz.

Nik espazio honetan irakaslearen esku-hartzea faltan bota dut. Materialak eskuragarri uzteaz arduratu da gehienbat eta nire ustetan hurrek egiten ari dituzten marrazkiei erreperatu beharko lioke gehiago. Hurrek egindakoari erreferentzia eginez edota hurrek eginikoa adierazteko motibatuz.

Haur hauek 3 urteko haurrak dira, beraz, adierazpen plastikorako espazio honek oso denbora laburra iraungo du.

- **Jasotzeko espazioa**

Momentu hau taldearen araberakoa izango da.

Materiala biltzean datza. Momentu hau, ohitura egokiak hartzen hasteko erabili ahal dugu. Ohitura egoki hauek oso baliagarriak izango dira haurren garapenerako.

Nire grabaketan, hau egoki bete dutela ikusi ahal izan da. Haurrek kurtsu hasieratik materialen jasotzea egitera ohituta daude, beraz kooperazioan, eta irakaslearekin batera gela lehen zegoen bezala uzten dute.

- **Agurraren espazioa**

Psikomotrizitate saioari bukaera egoki bat eman ahal izateko agurra dugu momentu garrantzitsuenetarikoa bat.

Agurraren bitartez jarduerarekin deskonektatzea lortuko dugu eta berriz ere taldea elkartu beharko dugu hau aurrera eraman ahal izateko. Momentu honetan ariketa albo batera utzi beharko dugu, saioari buruz hitz egiten edota ipuin bat kontatzen diegun bitartean. (Ipuina ere saioaren hasieran konta daiteke).

Hori egin eta gero, elkarri agurtuko dugu oinetakoak janzten ditugun bitartean.

Nire grabaketari erreferentzia eginez, irakaslea agurra behar bezala aurrera eraman ez duela pentsatzen dut. Ipuin baten presentziaz gozatzeko aukera izan genuen eta haurrak bertan oso gustora egon ziren. Baina bukaeraz hitz egin beharrean zuzenean zapatak jantzi eta gelara abiatu ginen.

Hau daukagun denbora eskasa dela eta izan daiteke, baina nire ustetan psikomotrizitate saio bat behar bezala agurtu beharra dagoela uste dut, haurrek bertan bizitako guztia utzi ahal izateko.

Bideo hauei esker eta marko teorikoan aipaturikoa kontutan harturik, psikomotrizitate saio batean metodologiak duen garrantziari buruz hitz egitea zen nire helburu nagusietako bat. Eta bideo grabazioaren bitartez helburu hau bete egin dudala uste dut. Bestalde, eta beste helburu batekin topo egin nahian,

psikomotrizistak eta kasu honetan irakasleak izan beharreko jarrerari buruz gutxi aritu naizela uste dut.

### *2.2.2 PSIKOMOTRIZITATE SAIO BATEAN IRAKASLEAK, PSIKOMOTRIZISTA GISA IZAN BEHARREKO JARRERA*

Azkeneko atal honetan, psikomotrizistak hartu beharreko zenbait irizpide azaltzeari ekingo diot, beti ere kontutan harturik hauek izan direla nire grabaketari esker ateratako zenbait ekarpen edota ondorio.

Jarraian ikusi ahal izango dituzuen ekarpen guzti horiek, nik grabaketaren bitartez ateratako ondorioak izan dira, baita irakasleen ekarpenei esker eskuratu ahal izan ditudan zenbait ekarpen ere.

Ekarpen hauek baliagarriak izan daitezke etorkizunerako, psikomotrizitate saio baten aurrean gaudenean erabili ahal izango ditugulako. Beraz, garrantzi handikoak direla esan beharra daukat, horiei jarraiki, psikomotrizista egoki baten jarrera aurrera eramaten arituko baikara.

- **Harreman asimetrikoa**

Haurraren jolasean sartzeko itxura egitean datza, jolasa aurrera ateratzen laguntzeko, baina tartean sartu gabe; kanpotik behatuko du haurraren jolasa.

- **Autokontzientzia** (haurrak badu barne-emozioen berri)

Emozioen autokontrola behar dugu, epaitu gabe, besteen sentimenduak hobetu ulertu ahal izateko. Ezaugarri horrek ondorengo beste zenbait ekintza ahalbidetzen ditu. Gaitasun horri esker, agresibitate arazoak, gorputz-kontaktuak, ustezko proiektzioak gainditu daitezke, baita arauak bideratu inoialako inposiziorik gabe.

- **Legearen eredu**

Zenbait arau finkatu behar dira: minik ez eman, besteen lanak errespetatu, ez apurtu... Giro permisiboa behar dugu gelan. Haurraren berezkotasun eta batasaten dakiena betekotasuna ahalbidetzeko, baldintza eta arauak gutxienekoak izango dira. Haiek pentsatzen dutena esateko, askatasuna izango dute, zigorrik jasotzeko beldurrik gabe. Emandako mezuak laburrak izango dira, eta saio-hasieran emango dira gehienak. Portaera desegokia duten haurrak maitasunez

eta jarrera ulerkorraz hartuko ditugu kontutan; baina aldi berean, mezu zuzen eta zehatzak transmititu beharko dizkiegu.

- **Segurtasun fisiko eta afektiboa**

Haurrari kontiantza adierazi behar diegu: hitzen, jarreraren, kokalekuaren, proposamen egokien bitartez eta urratsen sekuentzia errespetatu behar dugu. Haurraren ama-giroa lortu behar dugu, baina aldi berean, autoritate-egitura lortu behar da, ezetz esaten dakiena. Entzuten eta ulertzen dakienaren giro goxoa sortu behar dugu.

- **Enpatia**

Bestearen lekuan jartzen jakin behar dugu, bestea nola sentitzen den jakin ahal izateko. Haurraren bat bateko jarduera ez dugu moztu behar, itxaroten jakin behar dugu.

Haurraren mugimenduzko adierazpena behatuz, hari buruzko informazioa jasotzeko gai izan behar gara. Honetan ahots-doinak, keinuak, aurpegiko adierazpenen mezuak oso garrantzitsuak izango dira. Haurrak diren bezala onartu beharko ditugu, aniztasuna onartuz; beren portaera beren istorio pertsonalaren emaitza eta ondorio gisa direla onartuz.

- **Prestasuna**

Ezaugarri kognitibo, afektibo eta gorputzekoen bitartez ( doinua, keinua, begirada,) haurra ondo sentí dadin lor dezakegu, bere burua errespetatzen eta onartzen dugula ikusaraziz. Helduaren gorputza garrantzizko baliabidea izango da haurraren bilakaera-prozesuan. Besteak beste honako atal hauek izan beharko ditugu kontutan:

1. *Keinuak*: emozio-egoera aurpegiz adierazten da.
2. *Begirada*: komunikaziorako leiho gisa azaleratzen da, ispilu gisa.
3. *Ukimena*: elkarren arteko harremanetan, etengabeko presentzia eta garrantzi izugarria izango du.



- **Lan giro irekia**

Hurrek egindako aukera onartuko dira, heziketarako eta beren garapenerako lagungarritzat hartzen diren neurrian. Haurrak bere kezka, zalantza, beldurrak kontutan hartzen direla sumatu behar du.

Laburbilduz, psikomotrizitatearen arduradunak, haurrari entzun behar dio, bere lorpenak goretsi, eta era berean, proposatu, orientatu, animatu egin dezake, baina umea izango da, azken finean, bere bizipen guztien jabea.

### **2.3 AUCOUTURRIERREN METODOA EBALUATZEKO PROPOSAMENAK**

Aurreko puntua alde batera urtzirik, puntu honetan Aucouturier metodoa ebaluatzeko proposamen bat egitea gustatuko litzaidake.

Proposamen honek ez du aurreko puntuan analizatutako bideoarekin zerikusirik izango.

Bururatutako proposamenaren ideia, Aucouturierren metodoa analizatzen joaten nintzen heinean sortu egin zitzaidala esan beharra daukat, alderdi honetan topatu izan ditudan zenbait gabezien ondorioz.

Aucouturier metodoarekin lanean egon naizen denbora luze honetan, ez ditut ebaluatzeko taularik inondik ikusi. Bai, ordea, psikomotrizistaren jarrera behatzeko behaketa parametroak zeintzuk diren ikusi ahal izan ditut. Behaketa parametro horiei esker, haurraren adierazkortasuna momentu ezberdinetan behatu ahal izango dugu.

Marko teorikoan aipatutako behaketa parametro guzti horiek kontutan harturik, psikomotrizitate saio bat ebaluatzeko taula bat sortzea gustatuko litzaidake. Beti ere kontutan harturik, taula hori Aucouturier metodoak jarraitzen duen metodologiari zein psikomotrizistak izan beharko lukeen jarrerari egingo diola erreferentzia. Hau da, behaketa taula honen bitartez, edota behaketa taula hau sortzearen helburua Aucouturier metodoaren eragina haurrengan nolakoa izan daiteke ikustea helburu du.

Honetarako, taula honetan Aucouturier metodologiarekin zerikusia izango duten zenbait ítem ipiniko ditut. Item edota galdera horiek Aucouturierrek

proposatutako metodoaren metodologiarekin zerikusia izango dute, baita psikomotrizistaren interbentzio zein esku-hartzearekin.

Beraz, proposamen hau martxan jartzearen arrazoiak hauek izan dira:

- Aucouturier metodoan oinarritutako gabeziei aurre egitea, nik sortu egingo dudan proposamen baten bitartez. Modu honetaz psikomotrizitate saioa behatu ahal izateko behaketa taula bat sortu egingo dut, behaketa taula horrek Aucouturier metodoan aipatzen dituen oinarrie egingo die erreferentzia.
- Egindako edota aurrera eramandako proposamena etorkizunerako baliagarria izan dadin lortzea. Hau da, behaketa taula honek, etorkizunean bere baliogarritasuna zein garrantzia izatera lortzea izango da nire bigarren helburua. Modu honetaz, profesionaleei eta kasu honetan psikomotrizitate saio batean parte hartuko duen psikomotrizistentzat lagungarria bilakatuz.

Beraz, nire proposamenaren helburuak zeintzuk diren definitu ditudalarik, proposamena aurrera eramateko beharrezkoak ditudan azalerraten saiatuko naiz.

### *2.3.1 AUCOUTURIER METODOAN OINARRITUTAKO METODOLOGIAREN INGURUAN KONTUTAN HARTU BEHARREKO ZENBAIT PROPOSAMEN*

Behaketa taula hauek, Aucouturierrek psikomotrizitate saio baten aurrean eraman beharreko metodologiari egingo die erreferentzia. Hau da, taula hauen bitartez metodologiaren zenbait alderdietan oinarrituz (harrera, harresia...) itemak edota galderak prestatuko ditut, gure behaketarako zein ebaluaziorako izango duten garrantziari buruz hausnartu dezagun.

#### 1. GELARA SARTU AURREKO LEHENENGO SENTSAZIOAK

- |  |
|--|
| - Psikomotrizitate gelara joan baino lehen, nola topatzen ditugu haurrak?<br>Urduri, pozik, triste, gogorik gabe, irriketan... |
| - Psikomotrizitate saiora joatek zer suposatzen du haurrengan?   |
| - Espazio esanguratsua da haientzat?   |

## 2. HARRERA

- Automatikoki burutzen duten espazioa da harrera?
- Harrera momentu garrantzitsua da haurrentzat?
- Nola topatzen ditugu haurrak harreran?
- Ze motatako sentsazioak dituzte saioa hasi aurretik? - Sentsazio horiek adierazteko gaitasuna manifestatzen dute? - Ze motatako sentsazioak dira ohikoenak?
- Gelaren, espazioaren antolaketa, kokapen ezberdina, haurren garapenean eragina du? - Haurrak psikogelaren barruan daudela kontziente dira?
- Herreraren momentuan, arauak zer nolako garrantzia dute? - Hurrek arauak ze nolako garrantziarekin bizitzen dituzte? - Arauak suposatzen dutenaz kontziente dira? - Arau horiek aurrera eramateko gai ikusten dute bere burua? - Arauak hurren adina zein momentu ebolutiboarekin bat egiten dute? - Arauak kooperazioan egitea lagungarria da? Edota irakasleak (psikomotrizistak) finkatu ez gero garrantzi gehiago edota eragin handiago edukiko lukete?
- Momentu honetan gelaren antolaketari erreparatzea garrantzia du? - Gelaren antolaketak, espazio ezberdinen identifikazioa, hurren denbora zein espazio nozioan eragina du?
- Sortu behar dituzten jolasen, ekoizpenen adierazpenak gauzatzeko gai dira? - Euren jolas zein ekoizpen ezberdin horiek adierazpenak, manifestazioak ondorengo edota gerorako jolasak baldintzatuko dituzte?
- Harrera momentua adierazpen askatasun momento gisa jasotzen dute? - Adierazpen askatasunerako momento hori behar bezala aprobeztatzen dute hurrek?

### 3. HARRESIA

- Ze nolako sentimenduak azaleratzen dituzte haurrak harresiaren aurrean aurkitzen direnean?
- Ze nolako eragina du harresiak haurrengan?
- Haurrek harresiaren aurrean sentitzen dutena kontrolatzeko gai dira?
- Haurrek eta irakasleek adostutako seinalearekin, kontsignarekin identifikatzen dira? - Harresia botatzeko kontsignak ze nolako garrantzia hartzen du? - Harresia botatzeko kontsigna errespetatzen dute? - Kontsigna okerren aurrean nola jokutzen dute?
- Harresiak bere funtzioa betetzen du?

### 4. BEREZKO JARDUERA MOTRIZA

- Berezko jarduera motrizak ze nolako eragina du haurrengan?
- Espazio honek dituen helburuak aurrera eramaten dira?
- Berezko jarduera motrizak haurren aniztasunari aurre egiteko erantzuna eskaintzen du?
- Irakasleak behin eta berriz egiten duen espazioaren antolaketa horrek ze nolako eragina du haurrengan? - Materiala etengabe biltzen eta jasotzen aritzea lagungarria al da haurrentzat? - Haurrek biltze momentu hau nola bizitzen dute? Nolakoak dira aurrera eramaten dituzteen erreakzioak?
- Materiala espazio honetan ze nolako eragina du? - Materiala modu aprobean, egokian aukeratu al da?
- Espazio honetan sortzen diren berdinkideen arteko liskarrak ze nolako eragina dute? (Haur bakoitzarekiko, taldearekiko...)
- Sortuko diren jolasak ze nolako eragina dute haurraren garapenean?

## 5. JOLAS SINBOLIKOA ETA ERAIKITZEA

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jolas sinbolikorako edota eraikitze jolaserako espazioa zein den antzemateko gai dira?</li> <li>- Psikomotrizitate gelan dauden espazio ezberdinak identifikatzeko gai dira?</li> <li>- Espazio ezberdin horien sailkatzea ze nolako eragina du haurrengan?</li> <li>- Nola erantzuten dute espazio horien sailkatze edota banaketaren aurrean?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espazio honetan dauden materialak aproposak al dira?</li> <li>- Hurrek barruan dituzten barne- gatazka horiei erantzuteko gaitasuna dute materialek? Hau da, materialen funtzioa jolas sinbolikoaren aurrean betetzen da?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ze nolako garrantzia hartzen du jolas sinbolikoak?</li> <li>- Jolas sinbolikoak ze nolako sentimenduak, emozioak transmititzen ditu?</li> <li>- Jolas sinbolikoaren bitartez bizitakoa manifestatzeko gai dira?</li> </ul>

## 6. IRUDIKATZE ETA MINTZATZE ESPAZIOA

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irudikatze eta mintzatzeko espazio hau behar bezala definiturik dago?</li> <li>- Espazio hau antzemateko gai dira hurrek?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertan lortu beharreko edukiak garratzea lortzen da? Hala nola, oroimena, ordezkapena, kontzeptualizazioa...</li> <li>- Espazio honek bere funtzioa betetzen du?</li> <li>- Funtzio hau ezberdina izan daiteke haurraren adinaren arabera?</li> <li>- Ze nolako eragina du bertan haurraren adina edota bizitzen duen momento ebolutiboak?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola bizitzen dute espazio hau hurrek?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espazio honetan orain arte bizitakoa isladatzeko gai dira?</li> <li>- Zein modutan sentitzen dira erosoago bizitakoa isladatzeko?</li> <li>- Bizitakoa adierazteko zer nahiago dute? Adierazpen plastikoa,</li> </ul>

konstrukzioen bidezko adierazpena edota hitzezko adierazpena.
---

## 7. JASOTZEKO ESPAZIOA

- Errutina gisa bilakatutako zerbait da jasotzeko momentua?
- Ze nolako eragina du momento honek haurrengan? (Biltzearekin batera psikomotrizitate saioa bukatzen delako).
- Autonomoki jarduten dute? - Kooperazioan? - Nola antolatzen dira euren artean materiala jasotzeko? - Ze nolako estrategiak, antolamenduak eramaten dituzte aurrera?
- Bertan garatzen diren gaitasunak eragina dute haurraren garapenean?
- Biltzearen momento hau gelako beste momentu batzuekin identifikatzeko gai dira?

## 8. AGURRAREN ESPAZIOA

- Agurraren momentua ze nolako garrantzia du haurrengan?
- Momentu honetan ze nolako sentrazio motak bizitzen dituzte? - Zeintzuk dira sentrazio edota emozio ohikoenak?
- Ipuinaren garrantzia bertan ze funtzio betetzen du?
- Ipuinaren aukeraketa ze garrantzia du?
- Nola egiten dute agurra?
- Saioan bizitakoa bertan uzteko gai dira? Hau da, aurrera begiratzeko gai dira?

Behin metodologiaren inguruko oinarriari buruz aritu eta gero, eta oinarri hauentzat prestatutako behaketa taulak proposatu eta gero, jarraian psikomotrizistaren jarreraren inguruan hausnartzeko edota ebaluatzeko taulen proposamena egingo dut.

Beraz, hau izango litzateke psikomotrizistaren jarrera behatzeko sortuko nituzkeen behaketa taulak.

### *2.3.2 AUCOUTURIER METODOAN OINARRITUTAKO PSIKOMOTRIZISTA BATEN JARRERAREN INGURUAN KONTUTAN HARTU BEHARREKO EKARPEN BATZUEN PROPOSAMENAK*

#### 1. GELARA SARTU AURREKO LEHENENGO SENTSAZIOAK

- Irakaslearen esku-hartzea garrantzitsua da bertan hurrek dituzten sentrazioak ulertzeko garaian?
- Hurrek dituzten sentrazio horiek ulertzeko gai da psikomotrizista?
- Sentrazio horiei beharrezko garrantzia ematen dio?
- Nola bizitzen ditu psikomotrizistak sentrazio ezberdin guzti horien erreakzioak?
- Sentrazioak onartzen ditu, meziprezatzen ditu?
- Psikomotrizistak saioak hurrarengan duen garrantziaz ohartzeko gaitasuna du?
- Nola bizitzen du espazio hau psikomotrizistak?
- Aurrera eraman behar duen jarrera kontrolatzen, menperatzen du?

#### 2. HARRERA

- Harrera espazioan hurrek autonomikoki burutu behar dituzten ekintzetan zein nolako eragiña izan du psikomotrizistak? Hau da, nolakoa izan da bere esku-hartzea gauzak irakasteko orduan?
- Nolako maitaztasunarekin egin behar izan du ekintza berdina hurrek ikas dezaten?
- Nolakoa izan da aurrera eraman duen estrategia irakaskuntza prozesua esanguratsua izan dadin?
- Errepikapenak erabili ditu, egitura gidatua?
- Nola lortzen du psikomotrizistak hurrak ixiltasunean mantentzea?
- Zein motatako strategiak erabili ditu hurrak erakartzeko, entzutea bermatzeko?

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Psikomotrizista limiteak ezartzeko dagoela erakusten du? Adierazten du?</li> <li>- Zein nolako estrategiak erabiltzen ditu limiteak ezartzeko?</li> <li>- Gorputz adierazpenari zein hitzeko adierazpena erabiltzen du limiteak ezartzeko garaian?</li> <li>- Lege eta segurtasun sinbolokoak egoki adierazten ditu?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola bizitzen ditu psikomotrizistak haurren sentimendu, sentrazio ezberdinak?</li> <li>- Sentrazio ezberdin hauen aurrean ze motatako jarrera erakusten du? Urduri jartzen da, lasaitasunez, ...</li> <li>- Haurren sentrazioak adierazten laguntzen du?</li> <li>- Adierazi nahi dutenari hitza jartzeko gaitasuna du?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoki adierazten da? Egoki hitz egiten du?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gelaren antolaketa egoki eta aldez aurretik egiten edota prestatzen du?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurren nahi eta interesak, adin zein bakoitzaren momentu ebolutiboaren arabera kontutan hartzen ditu?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zein motatako estrategiak erabiltzen ditu arauak adierazteko, arauen garrantzia azpimarratzeko, haurrak espazioaren barne identifikatzeko, kokatzen laguntzeko...</li> <li>- Arauen aurrean erakutsi beharreko seriotasuna azaltzeko gaitasuna du?</li> <li>- Arauak egoki adierazten ditu?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurrak entzuteko denbora egokia eskaintzen du?</li> <li>- Nola entzuten ditu haurrak?</li> <li>- Ze nolako disponibilitate mailarekin azaltzen da?</li> </ul>

### 3. HARRESIA

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harresia aldez aurretik prestatzeko denbora hartzen du?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harresiaren egitura aldakorra izateko saiakerak egiten ditu?</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harresiaren aurrean haurrek dituzten sentrazioak ulertzeko, birsortzeko, enfatizatze gaitasuna duela erakusten du?</li> </ul>



- Harresia botatzeko beharrezkoa den kontsignari eman beharreko garrantzia ematen dio?
- Haurrek harresiaren kontsigna ez errespetatzekotan zer egiten du?

- Psikomotrizistak nola bizitzen du harresiaren momentua?
- Zein da psikomotrizistak hartzen duen jarrera? Bera ere jolasaren barne integratzen da edota soilik haurren jolasean akonpainatzen du?

#### 4. BEREZKO JARDUERA MOTRIZA

- Berezko jarduerari beharrezko garrantzia ematen dio?

- Espazio honek dituen helburuak betetzen laguntzen du?

- Zein motatako disponibilitate maila adierazten du etengabe egin behar duen materialen bilketaren aurrean?
- Esku-hartze hau nola azaltzen du?
- Eman beharreko azalpenak ematen ditu?( materialak biltzearen azalpena)

- Materialak egoki aukeratu ditu?

- Berdinkideen artean sortu daitezkeen liskarren aurrean nola errektionatzen du?
- Liskarrak modu berean edota egitura berdinarekin bideratzen ditu?
- Haurren arteko entzutea fomentatzen du?
- Haurren altuerara jeitsi eta begietara begiratzen ditu haurrak?

- Sortzen dituzten jolasei hitza jartzeko gaitasuna du?

#### 5. JOLAS SINBOLIKOA ETA ERAIKITZEA

- Gelako espazioak zein txoko ezberdinak bereizteko estrategia egokiak erabili ditu?
- Espazio ezberdin horien hausnarketa, garrantziaz jabetu da?

- Materialak egoki aukeratu ditu?
- Material horren aukeraketa jolas sinbolikoan laguntzen du?
- Jolas sinbolikoaren bitartez transmititzen dena ulertzeko gai da?

## 6. IRUDIKATZE ETA MINTZATZE ESPAZIOA

- Irudikatze zein mintzatze espazioaren garrantziaz jabetu da?
- Irudikatze zein mintzatze espaziorako bide ezberdinak aurkezten ditu? Adierazpen plastikoa, hitzezko adierazpenak, konstrukzioen bidezko adierazpena esate baterako.
- Nola antolatzen ditu adierazpen mota ezberdin horiek?
- Haurren adierazpen ezberdin horien aurrean nola jokutzen du?
- Adierazpen mota ezberdinak ulertzen saiatzen da?

## 7. JASOTZEAREN ESPAZIOA

- Errutina gisa bilakatzeko zein izan da bere esku-hartzea?
- Bilketan parte hartzen du?
- Nolakoak dira zuzentzen dituen azalpenak ekintza aurrera eramateko? Hau da, adierazpen zuzenak, argiak, zehatzak, errepikapenik gabekoak izaten dira?
- Autonomia fomentatzen du?
- Beste gelako momento batzuekin erlazioa egiten du?
- Erlazio hori nola azaltzen du?
- Haurrak egindakoagatik erreforzatzen ditu?

## 8. AGURRA

- Agurrari eman beharreko garrantzia ematen dio?
- Haurrak bertan uzten duena errespetatu eta entzuten du?
- Ipuinaren aukeraketa egoki egin al du?
- Hurrengo saio baterako motibazio esaldiak luzatzen ditu?
- Hurrek psikomotrizitate gelan bizitakoa erlazionatzeko gaitasuna du?
- Hurrek bizitako guztia ulertzeko gaitasuna duela erakutsiko du?

## **2.4 SANDUZELAI ESKOLAKO AUCOUTURIER METODOAN OINARRITUTAKO PSIKOMOTRIZITATE GELAREN SORRERAREN ADIBIDEA**

Azkeneko atal honetan Sanduzelai Eskolak aurtengo urtean sortutako psikogela berri baten prozesuari buruz hitz egitea gustatuko litzaidake. Psikogela berri honen metodoaren oinarria, nik eginbeharreko lanketarekin zerikusi handia duenez, alderdi praktikoan jartzea interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaidan, azken finean, irakasleek egindako lan hau nik aurrera eraman dudan lanketarekin harremanetan dagoelako.

Egindako lan honetan, aldaketa bat egitearen beharrak zein justifikazioekin hasiko naiz hasieran, ondoren behar horiek asetzeko eginbeharrekoak martxan jartzearekin batera. Hala nola, beharrezkoak diren materialak, espazioen estrategiak martxan jartzea ezinbestekoa izango da proiektu berri honen helburuak lortu nahi baldin baditugu.

Azkenik, gela berriaren agerpena nola gauzatu den azalduko dut, psikomotrizitate gela horren barne profesionalek, eta kasu honetan irakasleek, aurrera eraman beharreko jarrera nolakoa izan behar den adieraziz eta azpimarratuz.

Psikomotrizistaren jarrera zein begirada hauek Aucouturier metodoarekin bat egingo dute, baita psikomotrizitate saioan zehar jarraitu beharreko metodologia zein gelaren antolaketa ere.

Beraz, adibide honekin Aucouturier metodoa eskola batean nola eraman dezakegun aurrera ikusi ahal izango dugu, gainontzeko eskolek adibide hau ezagutu eta honetaz ikas dezaten.

Beraz, honakoa da Sanduzelai eskolaren proiektu berriaren adibidea. Hain zuzen ere nola sortu psikogela berria izenaz izendatua izan dena.

Proiektu berri honen beharrak identifikatzea zeintzuk ziren identifikatzea izango litzateke lehenengo gauza. Zeintzuk dira arrazoiak psikogela berri baten presentzia beharrezkoa izateko? Zeintzuk dira eginbeharreko aldaketak proiektu berri hau gauzatu ahal izateko?

Irakasleek euren artean koordinatu eta psikogelak behar ugari zituela ikusi ahal izan zuten. Hala nola, tamaina eta material aldetik, psikomotrizitate saio batek aurrera eramateko metodologiaren atalen ezjakintasunagatik, gaiarekiko ezagutza gutxiren aldetik eta bestetik psikomotrizitateak hurrengan duen garrantziarengatik.

Hau guztia kontutan harturik, behar horiek asetzeko prozesu bat martxan jarri zuten. Hasteko, psikogelari espazio handiagoa bat eman zioten, gela aldaketa bat suposatu zuena. Beharrezko materialen aukeraketa, espazio ezberdinen banaketa, (Aucouturier metodoan oinarrituta; gune sensorio-motorra, sinbolikoa eta errepresentaziorako espazioak) etab.

Psikomotrizitatearen garapenak gorputza kontrolatzeko, psikikoki eboluzionatzeko, besteekin harremanak izateko eta kanpoko mundua barneratzeko bide gisa duen garrantzia kontuan hartuz gero, psikomotrizitatearen garrantzia eskola baten barne justifikaturik geratzen da.

Beraz, praktika psikomotriza garatzeko, behar bezala hornituta dagoen espazio zabal baten beharra zegoela ohartu ziren. Haurraren adierazpen motrizak, kontentzio gune bat eskatzen baitu, horregatik eskura jarri beharko dizkiegu beharrezkoak izango dituzten baliabide espazial zein denborazkoak.

- **Espazio bakoitzaren kokapena**

- Hasierako eta amaierako erritualak

Gelako espaziorik argitsuena izatea erabaki zuten. Hori dela eta, harrera emateko, hitz egiteko, ipuina kontatzeko edota adierazpen plastikoa egiteko txoko aproposa izan zitekeela iruditu zitzairen. Bestalde txoko honetan ere hurrek, joko librean sinbolizatzeko espazioari egingo lioke erreferentzia, behin denbora amaituta deszentrazio gune bilakatuko baitzen espazio hau. Beraz, hasierako eta amaierako erritualaz aparte, jokoaren bizipenetatik distantzia hartzeko tokian ere bilakatuko zen.

- Joko sinbolikoa egiteko espazioa

Haurrak joko espontaneoaren bitartez, bere bizipenak, lorpenak eta beldurrak birbizitzen dituen espazioa izanen litzateke, beti ere marko seguru baten barruan egongo direla kontutan harturik. Txoko honek edota espazio honek, espazio aldetik, toki gehiena beharko lukeena izanen zen.

- Txoko sensoriomotrizia

Espazio honen barruan haurra bere abilezia motrizia garatzeko eta bizitzeko aukera izango luke. Bertan biziko dituen sentazioei esker, haurra bere burua gaitzat antzemanen du.

- **Espazio bakoitzeko materiala**

*Adierazpen motrizerako materialak* honakoak izango lirateke.

- Altzariak

Espalderak, arbela, armairuak, ispilua eta kutxak. Azpiegitura hauei esker, haurrak gora igotzeko nahiak, espazioa konkistatzeko aukera, irristaketak , saltoak ...bizitzeko aukera izanen lukete.

- Material biguina

Koloreetako gomaespumako blokeak, koltxonetak, kolore eta tamaina desberdinetako telak, pelutxezko animalitxoak edota trapuzko panpinak, kotoizko sokak, tamaina ezberdinetako pilotak...Guzti hauek, egoera afektiboak bizitzeko balio izango dute, haurren joko sinbolikoa aberastuz.

- Material gogorra

Egurrezko makilak, tamaina desberdinetako plastikozko ontziak...

- **Adierazpen plastiko eta grafikorako materialak**

- Altzariak

Mahaiak, aulkiak...haurrek produkzioak modu egokian egin dezaten.

- Margotzeko materiala

Orri zuriak, koloretako errotulagailuak.

- Eraikitzeko materiala

Tamaina desberdinetako egurrak.

Bukatzeko, Bernard Aucouturierrek jarraitutako metodologia nolakoa zen eta nola egin beharko luketen zehaztu zuten.

Hau da, zein izan beharko luke jarraitu beharreko metodologia psikomotrizitate saioan zehar, baita zein izango litzateke irakasleek, kasu honetan hartu

beharreko jarrerak. Horiek nik grabatutako grabaketan nola egiten dituzten ikusi eta azalduta ikusi ahal izango ditugu.

Aldaketa guzti horiek egin ostean, irakasleek gauza askotaz ohartu ziren. Beraz, hauek izango lirateke irakasleek proiektu berri honekin lortu egin dituzten *onurak* eta atera egin dituzten *ondorioak*.

Psikomotrizitate saio bat aurrera eraman nahi dugunean, hainbat gauzataz kontziente izan behar gara

- Praktika psikomotrizeko saio batean, haurrak bere bizi prozesuan aurre egin behar izan dion momentuak birbizitzeko aukera eskaintzen du, marko seguru baten aurrean. Beraz, haur bakoitzaren izaera, beharrak, eta bere prozesuaren momentua, hau da, aurkitzen den momentu ebolutiboa onartu behar dugu profesionalek.
- Bestalde, gorputza haurraren lehenengo adierazpen elementu bezala ulertu behar dugu, gorputzaren mugimenduaren adierazpenean oinarrituko baikara praktika aurrera eramateko. Ondorioz, gorputz eskema osatzetik abiatuko gara ingurunearen antolaketa espazial eta tenporal arrazionala barneratzeko.
- Haurra txikia denean, emozionalidadeaz betetako ekintzetan oinarrituko du bere akzioak. Beraz, errepikapenaren ondorioz, akzioaren emozionalidadea gutxituz joango da ekintza zehatzekiko plazerra adieraziz. Prozesu hau, haurrak eraiki duen gorputz eskeman oinarrituko da inguratzen duen mundua ezagutu eta transformatu ahal izateko.
- Egin dituen transformazio hauetatik, haurrak egindako ekintzen inguruko akzio eskemak osatu ahal izango ditu. Honela, ekintzarekiko distantzia emozionala hartzen duen heinean, bestelako adierazpen planoan azaltzeko gaitasuna garatuz. Hau da, haurrak egindako ekintza adierazpen grafiko, plastiko edo hizkuntzaren bitartez azaltzeko gaitasuna agertuko da honekin batera.

Beraz, hauek izan dira atera egin dituzten *konklusioak*.

Alde batetik, haurraren garapenean psikomotrizitatea lantzea ezinbestekoa dela.

Bestalde, eginbeharreko aldaketa guztiek onurak ekarri dituela ikusi dute. Espazioan egindako aldaketei esker, haurrak hobeto sentitzen dira. Beraz, gelako giroan hobekuntza egon dela sumatu izan ahal dute irakasleek. Gainera, psikomotrizitate saioaren metodologia zehaztu eta bermatuta dagoenez, haurrek lehenengo momentutik nondik nora joan behar duten eta zeintzuk diren arauak badakizkitez eta honek, beraienganako konfiantza eta autonomia bereganatzea suposatzen du, beraien arteko harremanak sendotzen diren bitartean.

Gainera guzti hau gutxi bada ere, aldaketa guzti hauek irakasleen behaketetan eragina izan dute, espazioaren kokapena bertan izugarritzko eragina izan duelarik.

Bukatzeko esan, psikomotrizitate gela, kanpotik ikusita erokeri bat dirudien arren, umeak alde batetik bestera korrika, saltoka, ETB ikusten baititugu, berriz hor dagoen irakaslearentzako ikasle bakoitzaren garapen unea kokatzeko aukera paregabea dela esan beharra daukat. Umeen garapen arlo askotan eragina izaten ari baita une horrek: motrizitatean, alderdi kognitiboan, emozionalean, harremanetan... haur guztien garapen globala eta integrala garatzen joaten den heinean.

Azkeneko hau, praktika psikomotorraren helburu garrantzitsuenetariko bat izanik.





## ONDORIOAK - CONCLUSIONES

En este último apartado, y bajo el procedimiento del Trabajo de Fin de Grado, esta última parte la realizaré en castellano, ya que, siguiendo las normas del procedimiento así debo hacerlo.

Por ello y para finalizar este proyecto, me gustaría realizar unas conclusiones que engloben todo el trabajo hecho hasta ahora. Es decir, en este último apartado intentaré reunir las conclusiones que he podido sacar, gracias a la elaboración del marco teórico y la parte práctica de mi proyecto.

Esta parte, la cual tiene mucha importancia, debo hacerla desde el punto más objetivo que así le corresponda, ya que en este apartado voy a poder responder a los objetivos marcados en la primera parte de mi proyecto.

*Estas conclusiones serán las que respondan a mis objetivos*, y así realmente podré ver si he concluido o no con mis primeras expectativas.

Para concluir me centraré minuciosamente en cada uno de los objetivos que he marcado, desarrollando así el procedimiento que he seguido para poder cumplirlos.

En este apartado, me gustaría tener en cuenta mi opinión o mi valoración personal de este trabajo, añadiendo y teniendo en cuenta, cuáles eran mis objetivos principales o personales para llevar este tipo de proyectos adelante.

Dicho esto, estas son las conclusiones que he llevado a cabo:

En primer lugar, y haciendo referencia a mis *objetivos personales*, creo y afirmo que he *cumplido con mis primeras expectativas*, ya que antes de la elaboración de mi proyecto, *mi formación o mi sabiduría*, ante este tema elegido era muy *insignificante*. Es decir, gracias al trabajo elaborado, y gracias a la documentación con la que he tenido que trabajar, creo que he podido superar el objetivo que marque en primera posición, ya que una vez terminado el proyecto, siento que he superado con creces los objetivos marcados. Ahora sí que puedo expresar y realizar argumentos lógicos sobre este tema.

Además de ello, creo que he podido *superar mis miedos frente a la psicomotricidad*, ya que la falta de formación que tenía, me producía muchas inseguridades.

Dejando a un lado mis objetivos personales, me gustaría poder centrarme en los objetivos planteados para llevar a cabo este trabajo o proyecto. Por ello, uno a uno, y en un orden marcado, intentare hacer referencia a cada uno de ellos.

En primer lugar, *mi objetivo principal* de este trabajo es subrayar *la importancia que tiene la psicomotricidad en la etapa de Educación Infantil*, así haciendo *hincapié a la importancia de la psicomotricidad en el desarrollo del niño/a*. *Estos objetivos han sido respondidos gracias al método que he proyectado, el método de Bernard Aucouturier*, ya que gracias a él, he podido dar un nuevo punto de vista hacia lo que es la psicomotricidad y su importancia en el desarrollo del niño/a.

Trabajar con este método no ha sido lo suficiente fácil, ya que para poder conocerlo y entenderlo he tenido que necesitar de una comprensión bastante abstracta.

El desarrollo del método *Bernard Aucouturier*, conocido como la *“Práctica Psicomotriz”*, es un método nuevo que hoy en día está siendo muy utilizado en las Escuelas Públicas de Navarra. Gracias a ello, he podido sacarle mucho más jugo de lo que me esperaba a la parte práctica, ya que, he podido *reflejar* en el trabajo, en la parte práctica, muchas de las cosas ya mencionadas en el marco teórico. Es decir, he podido *relacionar y comparar lo aprendido* en la teoría *con la parte practica*.

Dicho esto, considero que he podido y he realizado un trabajo exitoso o de valor en cuanto a la psicomotricidad tanto en el aspecto teórico como en el aspecto práctico.

Mediante este proyecto he podido demostrar que *la importancia que tiene la psicomotricidad en el desarrollo del niño/a* es muy importante. Ya que a través del *espacio que vamos a ofrecer, la sala de psicomotricidad*, el niño/a podrá dejar en *total disponibilidad su cuerpo* para hacer todo tipo de construcciones o para realizar todo tipo de movimientos, acciones etc. A través de estas construcciones que el niño/a reproduzca, el profesor, en este caso el psicomotricista, obtendrá un papel muy importante, ya que tendremos y yo misma me incluyo cara al día de mañana, que *ayudarles a que el espacio de*

*psicomotricidad se convierta en un espacio de placer para ellos, en el cual, lo más importante sea potenciar el deseo para conseguir placer.*

Este deseo será llevado a cabo gracias a la *expresividad corporal del niño/a*, la cual será muy *atentamente observada por el psicomotricista*.

En este espacio, *el juego simbólico* tendrá un papel fundamental, por ello, tendremos que analizarlo con mucha atención. A través del juego simbólico, podremos entender muchos de los comportamientos que los niños/as tienen y por ello, nosotros como psicomotricistas tendremos que tener una *intervención educativa adecuada e importante*.

Esta intervención es otro de los aspectos que he podido trabajar en este proyecto, ya que por medio de la *actitud del psicomotricista* el desarrollo del niño/a será de una manera u otra.

Esta *intervención* tiene que ser *adecuada a cada niño/a* que se encuentre en la sala, y por ello debemos *respetar la edad o el momento evolutivo* en el que se encuentra el niño/a, subrayando así la importancia de la *diversidad*.

Además de todo ello, será imprescindible ofrecerles *seguridad afectiva* ya que puede que el niño/a se encuentre con problemas difíciles de resolver en la sala. Por lo tanto, aparte de la seguridad afectiva que les ofreceremos será importante *ayudarles a crear estrategias* que les ayuden a solucionar sus problemas, bien sea consigo mismos o bien sea con sus iguales.

En toda esta intervención *la sala de psicomotricidad* tendrá un significado muy importante. Ya que a través de ella, a través de *los materiales* que en ella haya o a través de *los espacios* que tenga, el niño/ a resolverá sus problemas o sus necesidades de una manera u otra.

Por consiguiente *la sala de psicomotricidad* es algo que tendremos que *preparar con mucha precaución, cuidado, atención*.

Para poder realizar este apartado con éxito, la ayuda del método Aucouturier, ha sido imprescindible ya que por medio de él, he podido trabajar muchas de las cosas que desconocía, así como; la metodología, la actitud del psicomotricista, la importancia de la expresividad corporal, los diferentes espacios que debemos tener en cuenta, los materiales...

También y dejando de un lado el apartado anterior, he podido ver las *diferentes orientaciones que tiene la práctica psicomotriz*. No solo es favorable en el *ámbito educativo* sino que como *terapia y ayuda* también es apropiado, por lo tanto, según cuales sean nuestras necesidades puede servir para una cosa o para otra. Y hoy en día, conocer nuevos métodos de intervención creo que es muy favorable como profesionales que somos.

Otro de los aspectos que también me gustaría destacar es la posible *comparación* que he podido hacer *ante la Psicomotricidad Clásica o la psicomotricidad creada por Aucouturier*, llamada o que se denomina como *Psicomotricidad Vivenciada*. Por medio de esta comparación, he podido *conocer los diferentes valores y objetivos* de este tipo de psicomotricidad, y me ha servido para saber qué es lo que quiero y no quiero reflejar el día de mañana en la sala de psicomotricidad que yo cree. Por ello, y a través de la comparación creo que he podido *reflejar o concienciar a la sociedad* cual de los dos tipos de psicomotricidad es más beneficiosa para el niño o la niña.

Por todo esto y como conclusión final, considero que *la psicomotricidad* es un *aspecto muy importante a tener en cuenta*, por ello, todo profesor docente, o todo posible *profesor/as debe tener formación y mucha práctica* en este ámbito, ya que a través de la psicomotricidad o por medio de la psicomotricidad podremos conseguir muchos de los objetivos que tenemos marcados en el Curriculum estipulado hasta ahora en la LOE (Ley Orgánica de Educación).

Para finalizar, me gustaría reflejar en una tabla todo lo comentado anteriormente, así quedando reflejado claramente cuales eran y cuales han sido mis objetivos en este proyecto. Con esta tabla como bien he dicho, intentaré reflejar los objetivos marcados realizando una comparación, o afirmación, con las conclusiones propias que yo he podido sacar a la luz. Es decir, intentaré reflejar si he cumplido o no mis objetivos a través de las conclusiones realizadas.

Esta tabla la realizaré en euskera, ya que todo mi trabajo ha sido elaborado en dicho idioma.

10. Taula. Helburu eta ondorioen laburpena

PLANTEATURIKO HELBURUAK	ATERATAKO ONDORIOAK
- Psikomotrizitate inguruan formakuntza areagotzea.	- Formakuntza aberastu, ezagutzak eta intseguritateak gainditu.
- Psikomotrizitateak haur hezkuntzan duen garrantziaz kontziente izatea.	- Psikomotrizitateak haurren garapenean eragin handia du.
- Psikomotrizitatearen garrantziaz jabetzea haurren garapenean.	- Psikomotrizitatea haurren garapenean dituen onurak analizatzeko aukera (arazoen aurrean estrategiak erakutsi, beharrak asetu, adierazkortasuna gauzatu...).
- Psikomotrizitate Klasiko eta Bizipenezko Psikomotrizitatearen arteko ezberdintasunak ezagutzea.	- Psikomotrizitate mota ezberdin hauen onurak eta ezberdintasunak behatu eta analizatu.
- Haurren adierazkortasun motrizaren garrantziaz jabetzea.	- Bide gisa haurrak bere beharrak asetzeko, eta plazerraren bila abiatzeko.
- Haurrenganako esku-hartzea.	- Psikomotrizistak izan beharreko jarrera analizatu.
- Psikomotrizitate gelaren garrantzia.	- Psikomotrizitate gelaren prestakuntza haurren garapenean duen eragiñaz bermatzeko, Bernard Aucouturierrek dioenari erreparatuta.
- Psikomotrizistaren jarrera	- Psikomotrizista batek izan

analizatzea.	beharreko ezinbesteko jarrerak. Bernard Aucouturierr erreparatuta.
- Praktika psikomotrizaren orientazio ezberdinak ezagutzea.	- Orientazio ezberdinen eragina haurraren garapenean ezagutzeko aukera.
- Jolas sinbolikoaren garrantzia.	- Jolas sinbolikoaren garrantziaz jabetzeko aukera, hurrek errepresentatu edota ekoiztu nahi dutena ezagutzeko bide gisa.
- Psikomotrizitateak dituen onuretz kontziente izatea.	- Gizartea ohartarazi psikomotrizitateak duen garrantziaz.
- Eskolako oinarrizko ikaskuntzak bermatzea.	- Psikomotrizitate saio baten metodologiaren ikasketen bitartez.

Beraz, eta konklusio zein ondorioekin bukatzeko esatea gustatuko litzaidake nire iritzia metodo honi dagokionez honakoa dela. Niri psikomotrizitatearen inguruan aritzeko metodo ezberdinak ezagutzea oso interesgarria iruditu zait, psikomotrizitate metodo ezberdinei esker, haurren garapenean eragin handia izan dezakegulako. Beraz, metodo hau ezagutzeak oso interesgarria iruditzen zait, irakasle izateko formakuntza gisa, azken finean metodo honi esker, haurraren adierazkortasun motrizari esker, bere barnean dituen eta ekoizpen moduan adierazi nahi dituen gauza asko ezagutu ahal ditugulako.

Gainera metodoaren metodología hain banatuta eta hain ongi antolatua egoteak izugarritzko abantailak sortarazten ditu, eta niri hau oso interesgarria iruditu zait, espazio eta espazio antolakuntza ezberdinetan gauza ezberdinak behatu ahal ditugulako.

## ERREFERENTZIAK

- **Bibliografia**

- Arnáiz, P. *Fundamentación de la práctica psicomotriz en B. Aucouturier.*
- Aucouturier, B. (2000). «La práctica psicomotriz», in *Cuadernos de Psicomotricidad*, 19, 8-11 orr.
- Aucouturier, B. (2004). *Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz.* Bartzelona: Graó.
- Aucouturier, B.; Darrault, I.; Empinet, J. L. (1985): *La práctica psicomotriz: Reeduación y Terapia.* Bartzelona: Científico-Médica.
- *Introducción a la práctica psicomotriz aucouturier (PPA).* Artículo publicado en el nº 136 en la revista AULA. Ed. Graò.
- Lapierre, A.; Lapierre, A. *El adulto frente al niño de 0 a 3 años: relación psicomotriz y formación de la personalidad: una experiencia vivida en la guarderia.*
- Pastor Pradillo, J. L. *El concepto de educación vivenciada y las posibilidades interdisciplinarias de las actividades físicas.* 217-228. ISSN: 1577-0338.

- **Webgrafía**

- <http://edupsicomotricidadinfantil.blogspot.com/search/label/La%20psicomotricidad%20vivenciada>. Eskuragarri noiz: 2014/04/22
- <http://infanтт.wikispaces.com/file/view/PSICOMOTRICIDAD+VIVENCIADA.pdf>. Eskuragarri noiz: 2014/04/16
- <http://psicomotricidadinfantil-arttax.blogspot.com/2010/04/psicomotricidad-vivenciada.html>. Eskuragarri noiz: 2014/04/03
- [http://webfacil.tinet.org/usuarios/herminia/Acerca\\_de\\_la\\_practica\\_psicomotriz\\_de\\_Bernard\\_Aucouturier\\_20101116101018.pdf](http://webfacil.tinet.org/usuarios/herminia/Acerca_de_la_practica_psicomotriz_de_Bernard_Aucouturier_20101116101018.pdf). Eskuragarri noiz: 2014/03/26
- <http://www.aecassociacio.org/files/articuloBA.pdf>. Eskuragarri noiz: 2014/04/02
- <http://www.alaya.es/2012/09/25/la-practica-psicomotriz-de-ayuda-terapeutica/>
- <http://www.asefop.com/espanol-la-practica-psicomotriz/>. Eskuragarri noiz 2014/05/02
- ...



## I ANEXO A. Behaketa fitxa baten adibidea

### PSIKOMOTRIZITATE SAIOA

Behaketarako jarraibideak

Behatzailea: ..... Taldea: ..... Data: .....

#### HASIERAKO ERRITUALA

1. Nola sartu dira?.....Asaldatuak, lasaitasunez,...
2. Arauak edo legeak.....Nola jaso dituzte, arretaz entzun dituzte...  
(Bai/Ez)
3. Hasierako kontsignari itxaron dute. ( Bai/Ez)
4. Oharpenak:

#### SAIOA

1. Materialaren erabilera.
  - Zein material izan dira gehien erabili dituztenak.
  - Zein material izan dira gutxien erabili dituztenak.
  - Nola erabili dituzte material horiek? (oldarkortasunez, lasaitasunez...)
2. Espazio ezberdinen erabilpena( sensoriomotor, sinbolikoa, eraikitze espazioa.
  - Zein espazio izan dira gehien erabili dituztenak.
  - Zein espazio izan dira gutxien erabili dituztenak.
  - Espazio batzuetara hurbiltzeko zailtasunak egon diren ala ez.
3. Taldearen analisisa ( Saioaren ebaluazio globala)
  - Bulkaden jaitsiera (Bai/Ez)
  - Jolas sinbolikoa (Bai/ Ez)
  - Autonomia (Bai/Ez)
  - Plazerra zein tentsioaren manifestazioa (Bai/Ez)

- Arauak errespetatu dituzte (Bai/ Ez)

4. Oharpenak

**BUKAERAKO ERRITUALA**

1. Azkeneko kontsignaren aurrean jolasa uzteko kapazak izan diren. (Bai/ Ez)
2. Nolakoa izan da jolasari egindako azken agurra. (Bai/Ez)
3. Oharpenak

